



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



Vitoria-Gasteiz  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora  
HHESen Hiri Koordinatzailea  
Ciudad Coordinadora de la RECE



# ZABALGANA

## Udalaren

## Haur

## Eskolako

## Hezkuntza

## Proiektua

# 2020

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>
1.1. Historia.	4
1.2. Gure inguru fisikoa.	4
1.3. Gure inguru soziala.	5
1.4. Eraikina eta espazioen kokapena.	5
1.5. Hezitzaile taldea.	6
<b>2. PRINTZIPIO PEDAGOKIKOAK</b>	<b>7</b>
2.1. Nola ulertzen dugu haurra.	10
2.2. Aniztasunarekiko arreta.	10
2.3. Pertsona helduaren zeregina.	12
2.3.1. Zuzendaria	12
2.3.2. Hezitzailea umearekin.	13
2.3.3. Bikote pedagogikoa.	14
2.3.4. Hezitzailea beste lankideekin.	14
2.3.5. Talde bilerak.	15
2.3.5.1. Mailakako bilerak.	15
2.3.5.2. Talde bilera orokorrak.	15
2.3.6. Hezitzailea familiekin.	16
2.4. Eskolako komunitatearekiko harremana eta parte-hartzea.	16
2.4.1. Familiak.	16
2.4.2. Eskolako atezaina eta garbitzailea.	18
2.4.3. Jantokiko laguntzailea.	19
2.4.4. Haur eskolako kontseilua.	19
2.4.5. Hezkuntza zerbitzua.	20
2.4.6. Sareko kontseilua.	20
2.4.7. Arreta Goiztiarreko Zerbitzua.	20
2.4.8. Gizarte Zerbitzua.	20
2.4.9. Kanpoko Kolaborazioak.	21
2.4.10. Haur Hezkuntzako praktiketako ikasleak.	21
2.5. Hizkuntzen tratamendua.	22
2.6. Baterako hezkuntza eta erantzunkidetasuna hezkuntzan.	22
2.7. Ingurumen-iraunkortasuna.	24

<b>3- HEZKUNTZA PRAKTIKA</b>	<b>25</b>
3.1. Harrerako eta eskola-bizitzara ohitzeko denbora.	26
3.2. Eguneroko bizitza antolatzen duten ardatzak.	31
3.2.1. Harrera- Agurra.	31
3.2.1.1. Harrera.	32
3.2.1.2. Agurra.	34
3.2.2. Otorduak.	37
3.2.2.1. Hamaiketako.	38
3.2.2.2. Bazkaria.	42
3.2.3. Higienea.	48
3.2.4. Atsedena- Loa.	54
3.2.5. Bestelako ekintzak.	59
3.3. Jolaserako aukerak.	65
3.4. Espazio eta material hezitzaileak.	69
3.4.1. Espazioa.	70
3.4.2. Materialak.	74
3.5. Antolamendua eta funtzionamendua.	82
3.6. Ebaluazioa.	85
<b>4- HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUSPENA</b>	<b>88</b>
<b>5- BIBLIOGRAFIA</b>	<b>89</b>

## **1- SARRERA**

### **1.1. Historia**

Gasteizen bost Udal Haur eskola daude. Zabalganako eskola 2007an sortu zen izen berberako auzoan.

Eskolan 0-3 urteko sei gela ditugu. Gela bakoitzaren kopurua hau da: sehaskako geletan 8 ume, urte bateko geletan 13 ume eta bi urteko geletan 18 ume eta talde bakoitzak bi hezitzailekin. Adina, kasuistika eta egoeraren arabera, kopurua murriztu egiten dugu edota adin anitzeko hurrek osatutako gelak betetzen ditugu.

### **1.2. Gure inguru fisikoa**

Eskola, Zabalgana auzoko erdigunean dago. Auzo hau hiriko hegomendebaldean kokatuta dago, hain zuzen ere: Zabalganako basoa mendebaldean, Armentiko basoa hegoaldean, Ariznabarra ekialdean; eta amaitzeko Ali zein Borinbizkarra auzoak iparraldean.

Gure eskolaren helbidea Ilustrazio Hiribidea, 46 da. Bere kale nagusiak Soffía erreginarene, Giza eskubideen eta Zabalgana hiribideak dira; eta Ali ibaia kale erditik igarotzen da.

Alde honetako eraikuntzek sei altuera baino ez dituzte, gehienak etxe elkarri atxikiak dira lorategi zein oinezkoentzako kalez inguratutik. Gainerako aldeetan, etxebizitzak altuagoak dira; eta haien artean babes ofizialeko zein alokairuzko etxebizitzak aurki ditzakegu.

Auzoak azpiegitura eta zerbitzu guztiak ditu: Osasun etxea (gure eskolaren parean), saltoki-gunea, gizarte-etxea eta denda txikiak eskaintza handiarekin.

Zabalgana eskola irisgarritasunaren ikuspuntutik eroso da. Familia gehienak oinez datoz. Autoz heltzen direnek lan arrazoiengatik egiten dute; hau da: autoa behar dute beste auzo batera lan egitera doazelako edota beste auzo batean bizi dira eta eskolatik gertu lan egiten dutelako.

Heziketa-esparruari dagokionez, gune honetan, beste ikastetxe batzuek gain, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan eskola publiko eta pribatu batzuk daude.

### 1.3. Gure inguru soziala

Zabalgana auzoko biztanleek, jatorri, kultura, gizarte eta ekonomia-mailak elkartzen dituzte: Gasteizko familiak, beste hiri batzuetako senitarteak, eta beste herrialde batzuetatik migratzen diren senideak.

Eskolan, orain dela bi urtera arte, aniztasun hori agerikoa ez da izan, eta seme-alabak matrikulatzen zituzten gurasoak gazteak ziren eta beraien lan egoera nahiko egonkorra zen.

Hala ere, azken urteotan, aniztasun hori nabaritu dugu. Bi urtekoentzako doakotasuna zein errenta baxuagoak dituzten senideei kuota murrizketa izan dira arrazoiak. Horrela, lehen seme-alabak eskolara ekarri ezin zituztenek, gaur egun egin ahal dute.

Eskolara datozen familia gehienek gaztelaniaz hitz egiten dute, ehuneko gutxi euskaraz egiten du; eta beste etxeko-hizkuntza bat daukaten umeak izaten hasi gara. Esate baterako: txinera, arabiera, Afrikako hizkuntzak, eta abar.

### 1.4. Eraikina eta espazioen kokapena

Eskola solairu batekoa da eta jolastokiak inguratzen du. Sarreran dagoen txoko batean familiak umeen kotxeak utz ditzakete eta korridore luze batean zehar gune guztiak banatzen dira. Eskolaren erdian korridore hori erdiko aretora irekitzen da eta espazio horrek hamaika aukera ematen ditu (espazio motorea, toki bat bilerak antolatzeko...).

Korridore amaieran, erabilera anitzeko esparru bat dago. Orain bi urteko jantokia da.

#### **Eskuineko aldean:**

- Zuzendariaren bulegoa eta irakasleen gela.
- Psikomotrizitate gela (bainugela batekin umeek erabiltzeko).
- Erabilera anitzeko gela (goizean zehar jarduera desberdinak egiteko erabiltzen dugu eta eguerdian siesta egiteko baliatzen dugu). Espazio honetatik jolastokira atera daiteke. Espazio honetan ireki daitekeen horma dago jantokiarekin komunikatuta dagoena, gune zabalagoa lortu nahi izatekotan.
- Jantokia (komun batekin umeek erabiltzeko, eta gainera beste ekintza batzuk; hala nola, plastika, semola...egiteko ere erabiltzen da).
- Sukaldea.

- Irakasleen aldagelak eta bainugelak.
- Material didaktikoa gordetzeko biltegia.
- Garbiketa produktuen biltegia eta arropa lisatzeko eta ikuzteko tokia.

### **Ezkerraldean:**

- Bi sehaska gela, *office-a* eta siesta gela batekin komunikatuta.
- Bi urtebeteko gela, bainugela eta "intergelak" (espazio txikiagoak jardueretarako edo atsedeen gune gisa partekatzen direnak) deitzen dugun espazioarekin komunikatuta.
- Beste bi gela: bat urte batekoa eta beste bat bi urtekoa komun bat eta "intergelak" (espazio txikiagoak jardueretarako edo atsedeen gune gisa partekatzen direnak) deitzen dugun espazioarekin komunikatuta.
- Material suntsikorrarako biltegia.

Eraikitako Udal Haur Eskolen Sarearen azken zentroa eta aurreko eskola guztiak erreferentzia gisa izan arren, akats handiak ikusten ditugu. Hori dela eta, aldaketa txikiak egiten ari gara guztion beharretara egokituz. Badira konpondu ezin ditugun aspektu estrukturalak. Esate baterako, gela bakoitzetik patiora zuzeneko irteera eza, haien tamaina edo espazio desberdinetako intsonorizazio eza. Baina denboran zehar badaude elementu edo aspektu asko hezitzaileen eskuragarritasunari esker hobetu direnak: hormen kolorea neutralizatu dugu zuriz margotuz eta kanpoko patioa egokitzen ari gara espazio desberdinak antolatzen (lasaitasun espazioak, jolas motorea eta esperimintazioa).

### **1.5. Taldea**

Eskola hezkuntza taldea 15 profesionalak osatzen dugu: gela bakoitzeko bi tutore, eskolako zuzendaria, errefortzu hezitzailea (bai hezkuntza bai antolakuntza lanetan) eta pool-a.

2016-2017 ikasturtean pool-a agertu zen eskolan. Laguntza hezitzailea da eta bere helburu nagusia da lizentziak, baimenak, falta justifikatuen eskubideak eta abar gauzatzea, gainerako taldeari eragin gabe.

Talde hau handitu egin daiteke eskolaren beharren arabera: hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak dauzkagunean, jantokiko zerbitzuaren eskaera handiagoa denean eta hezitzaileen murrizketak daudenean.

Eskolan zuzendari bakarra daukagu eta errefortzurako hezitzailearen laguntza dauka antolakuntza lanetan.

Taldearen lan-egoerari dagokionez, oinarrizko pertsonala karrerako bi funtzionariok osatzen dute (zuzendaria eta hezitzaile bat) eta gainontzeko hamahiruak bitartekoak dira.

Hezitzaile finkoen ehunekoa handia ez den arren, bitarteko hezitzaileek egonkortasuna eman diote taldeari azken urteotan.

## 2. PRINTZIPIO PEDAGOGIKOAK

Gasteizko Udalaren Haur Eskolek 40 urtetako esperientzia dute. Gure Haur Eskoletako egunerokotasunean eta esperientziak emandako fruituetan oinarrituta egiten dugu lan.

Beharren edota taldeen arabera gure lan egiteko modua moldatzen dugu. Izan ere, gure eskolan ez dugu metodologia zehatza jarraitzen eta gela bakoitzak autonomia du bere praktika aurrera eramateko. Dena den, nahiz eta era bakarra ez jarraitu, autore edo oinarri teoriko batzuei jarraitzen diegu arlo guztietan:

**E. Pikler:** Mugimendu librea-ren teoria.

- Haurrari aitortu egin behar zaio izateko, egiteko, aukeratzeko eta bere kabuz erabakitzeko duen ahalmena.
- Haurraren prozesuari itxaron egin behar zaio, segurtasunez, konfiantzaz, denbora emanez eta behartu gabe.
- Haurraren erritmoak, beharrak eta nahiak errespetatzea, oinarrizkoa da.
- Erritualak errepikatzea garrantzitsua da umea, datorrena jakinda, ziurrago sentitzeko.

**J. Bolwby:** Atxikimendua-ren teoria.

- Atxikimendua bi pertsonen arteko interakzioari esker garatzen den eta denboran zehar mantentzen den lotura emozionala da.
- Haur bakoitza bakarra dela eta bakoitzak prozesu pertsonala duela ulertu behar da.

**M. Montessori:** materiala eta espazioa.

**Reggio Emilia eskola:** metodologia eta filosofia.

**J. Piaget eta L. Vygotski:** Hezkuntzaren teoria Konstruktibista.

**B. Aucouturier:** Psikomotrizitate Praktika.

**L. Malaguzzi:** Norbanakotasunaren teoria.

**M. Rossenberg:** Komunikazio Ez Bortitza-ren teoria.

**R. Jové eta J. Quintela:** psikologo hauen hausnarketak eta azalpenak. Bizi-ingurunerako baldintza egokiak sortzen badira, haurrek beren kasa lokartzen ikas dezakete.

Haur Hezkuntzaren helburu nagusia haurraren garapen osoa bultzatzea da eta horretarako, Zabalganako eskolan hurrengo hastapen metodologikoak kontuan hartzen ditugu:

- **Hezkuntzaren teoria Konstruktibista:** umea bere garapenaren eta ikaskuntzaren eragilea eta protagonista da. Beste ume, heldu, egoera eta objektu batzuen arteko interakzioaz bere jakintzak eraikitzen ditu.

- **Ikuspegi globalizatzailea:** umeak ez du partzialki bizi ingurunea; aitzitik, ingurunearekin duen lehen harremana pertzepzio osoaren eta manipulazio aktiboaren bidez lortzen du. Beraz, umeari errealitatezko esperientzia ezberdinak eskaintzen dizkiogu ikuspegi globaltuaren barruan.

- **Ziurtasun afektiboa:** pertsonen arteko harreman egonkorak, etengabeak, intimoak eta goxoak ezarri eta mantentzen ditugu haurraren eta ondo ezagutzen dituen helduen kopuru mugatu baten artean.

- **Ikaskuntza esanguratsua eta funtzionala:** umeak ezagutzen duena abiapuntua da. Berak egindako aurkikuntza aktiboak aurreko ezagueren eta ikaskuntza berrien arteko loturak ezartzen ditu, **ikaskuntza esanguratsua** gauzatuz.

- **Jolasa ekintzaren eta errutinen ardatza:** jolas librea, espontanea, norberak sortua zeharka babestua eta norbanakoaren garapen erritmoa errespetatzen duena.

- **Segurtasun eta konfiantzazko giroa:** afektibo, ziurtasun fisiko eta emozionaleko giroa sortzen dugu. Umea behin seguru eta maitatua sentituz gero, inguru fisiko eta sozial hurbilena esploratzera ausartzen da.



- **Sozializazioa:** beste umeekeko eta hezitzaile batzuekiko harremanetan ikasten du. Umearen garapenerako eta izaki soziala izateko oinarritzkoa da. Horretarako, umeak nor den kontzientzia lortu behar du, bere ingurune sozialean, materialean, espazioan eta denboran koka dadin.

- **Haurraren beharrak:** osasun fisikoa eta gorputz-ongizaterako egoera ona bilatzea eta mantentzea. Batez ere, oinarritzko beharren asetzea (biologikoak, ziurtasun afektiboa, jolasa, garbiketa eta abar).

- **Norberaren erritmoa:** garapen erritmo ezberdinak, nahiak, errealitatea ezagutzeko erak, beharrak eta afektibitatea adierazteko era errespetatzen ditugu. Bakoitzaren banakotasuna eta aurrerapausoak baloratu eta gure aldetik itxaropen, konfiantza eta onarpen jarrera izaten dugu.

- **Ekintzak giro aberatsean:** kalitatea kontuan izatea, ez kantitatea. Horretarako materialak, espazioak... zaintzen ditugu.

- **Ekintza eta esperimentazioa:** ekintza gozamenaren iturria eta ikaskuntzaren oinarria da. Manipulazioari, ikerketari esker, haurrak ezagutza eraikitzen du (bere buruarena, besteena, ingurune fisiko eta sozialari dagokiena).

- **Motibazioa eta sormena:** haurraren sormena estimulatzeko behar-beharrezkoa da zentzumen guztien estimulazioa eta erabilera. Irudimenaz eta ezustekoz beteriko proposamenak prestatzen ditugu, non motibazioa eta sormena oinarri-oinarritzkoak diren.

- **Bikote pedagogikoa:** 2.3.2 puntuan azalduta dago.

- **Familia-eskolaren arteko komunikazioa:** familiarekin elkarlana bultzatzea beharrezkoa dugu eskolan egiten den lana ulertzeko, bere balioa ezagutzeko eta beraiek ere haurraren heziketan parte hartzeko. 2.4.puntuan azaltzen dugu.

- **Entzute aktiboaren teoria.**

Hala eta guztiz ere, taldean hitz egiteko denbora falta nabarmentzen dugu akordioak, arazoak, proposamenak... komunean jartzeko. Bestalde, eskolako baliabide fisikoek ez digute laguntzen gure gustuko praktika aurrera eramateko. Dena den, ahal den neurrian lortzen dugu.

## 2.1. Nola ulertzen dugu haurra

Haur bakoitzak bere banakako errealitatea du; bere ezaugarri fisikoak, familiarrak, sozialak eta kulturalak ditu. Honek guztiak, haurra eskolara nola datorren baldintzatzen du.

Zabalgana Udal Haur Eskolan haurra izaki aktiboa, bakarra, sortzailea, globala, konplexua eta bere nortasunaren eraikitzailea dela ulertzen dugu. Interesak dituen haurra, sentimenduak eta asmoak komunikatzeko gai den haurra, esperimendatzen duena, jolasaren bidez bere gertuko ingurunea ezagutzeko gai dena eta bere parekoekin eta helduekin erlazionatzeko beharra duen haurra, alegia.

Eta honetan bere bizitzaren aldaketarik handiena esperimendatzen du eta izandako bizipenak azterna uzten dio.

Haur bakoitzak, bere norberaren egoera partikularretik, bere ezaugarrietatik eta bizipenetatik gure eskola aberasten du “*eskola inklusibo*” bihurtuz.

## 2.2. Aniztasunarekiko arreta

Haurren eskubideen Nazio Batuen Erakundearen (NBE) konbentzioan hala dio 1. zatiko 2. artikulua:

*“Haur guztiak dute ekitatearen eta aniztasunaren errespetua nagusi diren testuinguru batean hazteko eta garatzeko eskubidea, etniagatiko, generoagatiko, familia-egituragatiko, mailagatiko edo gaitasunagatiko, diskriminaziorik gabe, ez agerikoa, ez ezkutukoa, ez banakakoa, ez egiturazkoa, ez bestelakoa.”*

Pertsonari eta gizakien duintasunari eta aniztasunari errespetua izatea da gure hezkuntza-proiektuaren oinarritzko zutabea.

Gure eskolak inguruko pluraltasuna islatzen du. Izan ere, gizarte txiki bat da.

Hezkuntza inklusiboaren eta kalitatezkoaren bidean aurrera egiteko konpromisoa dugu. Eredu inklusibo honetan askotariko errealitateei eta premiei erantzuten diegu. Ondorengo kasu hauetan bereziki:

- Hezkuntza-premia berezia duen haurra.
- Zailtasun sozial edota ekonomikoko egoeran dagoen haurra.
- Babesgabetasuna pairatzeko arriskuan dagoen haurra.

- Beste kultura bat duen haurra edota beste herrialde batzuetatik iritsitakoa.

Kasu hauetaz aparte, ezin dugu ahaztu ume bakoitza desberdina dela eta edozein ezberdintasuna kontuan hartu behar dugula. Aniztasunak alderdi guztiak hartzen ditu barnean: generoa, erritmo biologikoa, garapen maila, interesak, familia-eredua, harreman eta ikaskuntza estiloa, osasun arazoak, eta abar. Gure begirada berezia izan behar da, inklusio egokia lor dezagun.

Eskola berdintzailea izanik, haurra eskolan sartzen denetik hurrengo helburuak lantzen ditugu:

- Haurraren ezaugarriak eta premiak ezagutzea eta onartzea, eta horiei erantzutea.
- Desberdintasuna eta aniztasuna balioestea, guztiontzat aberasgarria den heinean.
- Hezkuntza-ekitatearen printzipioan sakontzea, Haur Eskoletarako sarbidea eta garapen pertsonalean eta hezkuntzan dauden desabantailak edo aukera-desberdintasunak arinduz.
- Edozein pertsonaren fisikoari, ikaskuntzari, garapenari eta parte-hartzeari jartzen zaizkion hesiak hautematea eta hesi horiek deuseztatzeko lan egitea.
- Hezitzaile guztion aniztasuna gure lana aberasteko aprobetxatzea talde mailan eta bikote pedagogiko mailan.

Aniztasunari erantzuna emateko, gela bakoitzean bikote pedagogikoa egoteaz gain, kurtso hasieratik espazioak, materialak, denbora eta umeen taldekatzea antolatzen ditugu. Hau dena eten gabe eraldatzen dugu umearen beharrei eta interesei erantzuteko.

Dena den, aniztasuna hain zabala denez arreta gehiago edo handiago behar duten umeak ager daitezke. Kasu horietan ondorengo pausoak ematen ditugu:

- Umearen behaketa zehatza egitea.
- Umearen jarraipena egitea.
- Informazioa bilatzea.
- Familiarekin hitz egitea eta beren informazioa jasotzea.
- Dagokionean, Hezkuntzako teknikariari aholkua eskatzea.

- Umearekiko jarrera aztertzea.

## **2.3. Pertsona helduaren zeregina**

### **2.3.1. Zuzendaritza**

Udalaren Haur Eskolen Sarean, zuzendaritza urtero pertsona berak osatzen du lanpostua konkretua delako.

Zuzendaritzaren funtzioak Gasteizko Udalaren Haur Eskolen Sarearen funtzionamendu eta antolakuntzaren araudian jasota daude.

Zuzendaria eskolaren alderdi guztiak kudeatzeaz arduratzen da. Arlo horietan lotutako zereginak honakoetan zehaztu daitezke:

- Haur eskolaren ordezkari izatea.
- Eskolaren funtzionamendua antolatzea eta zuzentzea.
- Eskola Kontseiluaren bilerak kudeatzea.
- Hezkuntza mailan: Hezkuntza Proiektuaren jarraipena, eskola plana eta urteko memoria egitea eta betetzen dela ziurtatzea, egunerokoaren jarraipena egitea, familiekiko arretaren lana bultzatzea, talde bileraren antolamendua egitea...
- Administrazio lanak betetzea.
- Erakundeen arteko harremanak zaintzea.
- Lankideen kudeaketa egitea.
- Eskolaren kudeaketa ekonomikoa egitea.
- Eskolako mantentze-lanak betetzea eta egitea.
- Eskolako ziurtagiri ofizialak sinatzea.
- Udal Hezkuntza Zebitzuarekin gestio ekonomikoa adostea.
- Udal Hezkuntza Zerbitzuarekiko erlazioa mantentzea,

Ikasturtero zeregin hauetatik zentzuk diren lehentasunak planifikatzen ditu. Dena den, betebeharrak ager daitezke, beraz atal horietan sartzen ditu kontuan hartzeko.

Helburuak hauek dira:

- Umeekin, familiarekin, hezitzaileekin eta kanpoko beste agente batzuekin (gizartegintzakoak, mantentze-zerbitzukoak...) lotutako lana planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
- Laneko alderdi guztiak koordinatzeko, lantaldea kudeatzea eta motibatzea.

### **2.3.2. Hezitzailea umearekin**

Eskolan hezitzailearen edo bidelagunaren rola haur bakoitzari behar duena eskaintzea da, nolabait haurrari bideak irekitzeko, berak bere kabuz egin dezan.

Ez dugu ordea, objektu fisikoez soilik hitz egiten, hezitzailearen lana haurraren garapenean ondoan izatea da. Horretarako haurraren ongizate osoa bermatzen du, fisiko, sozial eta mentala (OMEk adierazten duen moduan).

Labur esanda, hezitzailearen rola garrantzi handia du haurreskolako egunerokotasunean. Izan ere, hezitzaileak haurrak bere egunerokotasunean dituen beharrak asetzeaz gain etorkizunerako baliagarri zaion hazi txiki bat landatzen du errespetatuz, maitatuz, eta giro aproposak sortuz unean unerako.

Gure lanaren ardatzak hurrengoak dira:

#### **- Lotura afektiboak ezartzea.**

Afektibitatea umearen behar nagusietako bat da eta bere garapen osoan eragin handia du. Haurra ziur eta maitatua sentitzen denean, hau da, atxikimendu segurua duenean, inguru fisiko eta sozialera hurbilduko da eta erronkei aurre egiteko gai izango da.

#### **- Segurtasun emozionala eta fisikoa eskaintzea.**

Hezitzailea erreferentia denez segurtasun fisiko eta emozionala eskaintzen dio. Horretarako umearen beharrak asetzeaz gain errutinak ezartzen ditu giro lasai eta afektibo batean.

#### **- Ongizatea bermatzeko bide-laguna izatea.**

Haurra bere garapen eta ikasketa prozesuaren protagonista bakarra da. Hezitzailea prozesu horretan ondoan dago bere begirada eta entzute aktibo jarrera mantenduz, inbaditu eta aurreratu gabe.

### **2.3.3. Bikote pedagogikoa**

Adin bereko talde batekin bi hezitzaileok ildo pedagogiko berberarekin lan egiten dugu. Erabaki-gaitasun berdina dugu, beraz, adosten ditugu gure esku-hartzeak, ahalik eta koherenteenak izan daitezen.

Bi hezitzaileok funtzio berberak ditugu bai haurrekiko lanean bai familiekiko harremanetan.

Gelak bi hezitzaile- tutore izateak abantaila handiak ditu, ondoren aipatzen ditugun arlo hauetan ikus daitekeen bezala:

- Ikuspuntu, erabaki, analisi... ezberdinak eta, hortaz, irizpide aberatsagoak ematen ditu.
- Hurrei helduekiko harreman ezberdinak izatea eskaintzen die.
- Talde txikietan eskolako beste espazioetan lan egiteko aukera ematen du.

Eskolako irizpide bezala, egunero bikote pedagogiko bakoitzak 30 minutuko koordinazioa egiten du. Momentu hauetan gure eguneroko gaiez hitz egiten dugu, hurrengo betebeharrak eginez:

- Gure bion arteko akordioak finkatu eta berrikusi.
- Gure lanaren inguruko hausnarketa egin: zer egin dugu egoera zehatz baten aurrean?, nola sentitu gara?, nola hurbildu gara umearengana?...
- Asteaz zehar egingo ditugun proposamenak erabaki.
- Proposamenak egoki eta baliagarriak izan diren baloratu.
- Espazioak eta materialak planifikatu.
- Haurren garapenaren eta egindako lanaren balorazioa egin.
- Lortu nahi ditugun helburuak zehaztu.
- Gelako apainketa eta txokoen antolaketa eta umeak eskuragarri dituen materialen aldaketak egin.

### **2.3.4. Hezitzaileak beste lankideekin**

Taldean, beste lankideekin lan egiteko, printzipio batzuk mantentzen ditugu:

- Besteen ikuspuntuak, iritziak...errespetatzea.
- Jarrera irekia izatea.
- Parte-hartze aktiboa izatea.
- Bakoitzaren lana, esperientzia baloratzea.
- Norbaitek behar duenean laguntzea.

### **2.3.5. Talde bilera**

Hamabostean behin 2 orduko talde bilera dugu. Lehenik, hasierako ordu erdia talde txikietan lan egiteko erabiltzen dugu (mailaka edota eremuka) eta talde bilera orokorrak 90 minutu irauten du.

#### **2.3.5.1. Mailako bilera**

Maila bereko hezitzaileok 30 minutuz elkartzen gara eskolako beste premiazko gaiak ez baditugu. Une horretan, mailako iritziak adosten ditugu eta eguneroko gorabeherak komentatzen ditugu. Gero, akordioak, esandakoak, arazoak...talde bilera orokorrera eramaten ditugu.

Eskola mailan, momentu horretan ere, zuzendaria, *pool-a* eta eskolako errefortzua elkartzen dira, hamabostaldi horren beharrak eta gertaerak birpasatzeko eta antolatzeko.

#### **2.3.5.2. Talde bilera orokorra**

Beti, bilera eguna baino egun batzuk lehenago, zuzendariak gela bakoitzeko tutoreoi eta errefortzuoari aipatutako gai-zerrenda banatzen digu. Gai-zerrenda osatzeko, hezitzaileok ere iradokizunak egin ditzakegu.

Mailako bileraren ondoren, bilera orokorrean landu behar ditugun gaiak dira:

- Mailako edota eremuko talde bileretan landutako gaiak komunean ipini akordioak hartzeko.
- Lehentasunaren lana.
- Informazioaren banaketa edo transmisioa (zuzendarien bilerak, kanpoko zein barneko informazioa, beste informazio batzuk...).
- Antolamenduari dagozkion gaiak (jaiak, lehentasunei jarraipena egin...).

Errefortzuek bilera bakoitzeko akta jasotzen dute txandaka, eta koadernoak talde osoarentzat edozein momentutan eskuragarri dago. Gai bakoitzari bukaera eman baino lehen, hartutako akordioak ozen irakurtzen ditugu.

Talde bileretan adostutakoa errespetatu eta betetzen dugu. Gure artean giro ona izan dadin garrantzitsua da denon adostasuna. Hori dela eta, akordioak adosterakoan denon iritziak jasotzen ditugu minimo batzuetara heltzeko. Jakin badakigu, batzuetan zaila dela aho-batez erabakiak hartzea eta kasu hauetan gehienek esandakoa, bozketa bitartez, ontzat hartzen dugu.

### **2.3.6. Hezitzailea familiekin**

Haurraren garapen integrala lortzeko familia eta eskolen arteko harremanak eta elkarlanak ezinbestekoak dira, gehienbat ziklo honetan, beraz, helburutzat hartzen dugu. Hori lortzeko hurrengo irizpideak ditugu:

- Familiari behar duen ziurtasuna ematea.
- Eguneroko informazioa elkarri ematea.
- Familia-eskola elkarrekiko konfiantza eta harreman estuan oinarritua izatea.
- Begirada irekia izatea.
- Elkarrekiko begirunea izatea.

### **2.4. Eskolako komunitatearekiko harremana eta parte hartzea**

Bere esku dituen giza baliabideak eta baliabide materialak kide guztien onerako erabiltzea da ongi antolatutako komunitate baten ezaugarri nagusia.

Gure eskolan hezitzaileak, zuzendaria, haurrak, haur hezkuntzako praktiketako ikasleak, garbitzailea, atezaina, jantokiko laguntzailea eta familiak egoten gara egunerokotasunean. Hala ere, gure komunitatea zabalagoa da. Bertan, Hezkuntza Zerbitzua, Arreta Goiztiar Zerbitzua, Gizarte Zerbitzua... daude.

Hauekin guztiekin dugu nolabaiteko harremana, batzuekin sakonagoa eta besteekin aldian aldizkakoa baina familiekin dugu harremanik estuena.

#### **2.4.1. Familiak**

Eskolara iristean, familia da haurraren bizi-testuingurua; beraz, beharrezkoa da familiarekiko harreman estua sustatzea eta erraztea. Harreman honen oinarriak errespetua eta elkarlana dira.



Familiaren eta eskolaren arteko harremanaren garrantzia zehazteko hainbat momentu edota ekintza zaintzen ditugu. Umearen lehenengo eskolaratze baikor eta hurbila lortzeko honako bideak erabiltzen ditugu:

**- Sarrerak eta irteerak.**

Gurasoek eta hezitzaileok informazioa elkarri emateko eta zalantza zehatzei erantzuna emateko. Oso momentu garrantzitsuak dira eta zaintzeko asmoz:

- Ikasturte bakoitzean, bai sarrera-orduan bai irteeretan, gela bakoitzetik hezitzaile batek umearen harrera egiten du eta besteak agurra.

- Une hauetan haurra da protagonista

- Giro lasaia eta segurua sortzen dugu, umea lasai aurkitzeko eta bere banakotasuna bultzatzeko.

**- Idatzizko informazioa.**

- Sarrerak eta irteerak. Idatzizko informazioa emateko unea da bai familiaren aldetik bai gure aldetik. Sehaska geletan, ume bakoitzak bere kutxatilategian daukan koadernotxoan, goizean, gurasoek etxeko informazioa betetzen dute. Gero, hezitzaileok umeak nola eman duen eguna bertan idazten dugu. Gainontzeko geletan, laukitegietan ere badago gurasoentzako idatzizko eguneroko informazioa.

- Informazio-kortxoa. Geletako ate ondoan dauden kortxoetan, adin honi buruzko artikulua ezberdinak, gelako informazio orokorra, argazki erakusketak... jartzen ditugu.

- Sarrerako kortxoa. Eskolako sarreran dagoen kortxoan, informazio orokorra eta guraso guztientzako interesa duten berriak jartzen ditugu.

- Liburu mailegua. Ikasturtero azaroak aldera, familiei "Liburu-mailegu" programa aurkezten diegu, haien seme-alaben garapen eta hazkuntzan laguntzeko liburuak izan ditzaten.

- Artikuluak bere eskura uzten dizkiegu interesa daukaten familiei.

**- Bilera orokorrak.**

Ikasturtean zehar gelako hiru bilera egiten ditugu. Lehenengoa uztailean, bigarrena azaroan eta azkena ikasturte bukaeran. Bilera hauetan helarazten diegun informazioa hezitzaile taldeak erabakitakoa da.

Uztaileko bileran ematen dugun informazioa beharrezkoa eta garrantzitsua da. Baina familia-eskola harremana sendotzearen helburuarekin, beste bi bileren egitura eta dinamika aldatzeko asmoa dugu, ez hain informatiboa eta benetan esanguratsuak diren gaietarako erabiltzearen beharra ikusten dugu.

#### **- Elkarrizketak.**

Zuzendaria da familiekin lehenengo kontaktua egiten duena umea eskolara etorri baino lehenago.

Kurtsoan zehar printzipioz bi elkarrizketa egiten ditugu familia bakoitzarekin. Lehenengoa irailean umeari buruzko informazio jasotzeko, familia ezagutu eta lehen hurbiltzea izateko, umeari gustatzen zaizkion jolas eta jostailuak zeintzuk diren jakiteko eta gertatzen diren hainbat egoeratan nolako joera izaten duten jakiteko. Bigarrena, familiek eskatuz gero, kurtso bukaeran egiten dugu umearen garapenari buruzko informazioa gurasoei emateko. Elkarrizketa hauetan bi hezitzaileok hartuko dugu parte ahal badugu.

Era berean, bai familiek bai hezitzaileok beharrezkotzat jotzen dugun guztietan ere biltzen gara. Bi hezitzaileok hartzen dugu parte eta hitzordua familiekin adosten dugu.

#### **- Parte- hartzea.**

Gurasoei eskolan parte hartzeko aukera ematen diegu. Tutoreok aproposa ikusten badugu, haurrek egiten dituzten ekintzetan, ospakizunetan... eta ikasturtean zehar sortzen diren hitzaldietan, tailerretan... parte har dezakete.

Horretaz gain, familia bakoitzari bere argazkiak dituen ipuin pertsonala ekartzea eskatzen diogu eta sehaska geletan, ipuinaren ordezkari familiaren argazki-kubo bat.

Eskola Kontseiluko partaideak izateko aukera dute, gela bakoitzeko ordezkari batek parte har dezake.

#### **2.4.2. Eskolako atezaina eta garbitzailea**

Eskolako atezainari L1 deritzogu. Bere ordutegia hau da: 7:30etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Atezaintza lana betetzeaz aparte garbiketa lanak ere baditu.

Eskolako atezainarekin harremana estua eta konfiantzazkoa da, bai sarreretan, bai irteeretan familiekin kontaktu zuzena baitauka. Bere lanpostuaren ezaugarrien artean zuhertasunarena da garrantzitsuenetariko bat.

Egunero espazioen garbitasuna bermatzen dute: lurra garbitu, paperontzi guztiak hustu (pixoihalen zakarrontziak bitan aldatzen dituzte egunean zehar usain txarra ekiditzeko).

Ekintza bereziren bat egiten dugunean L1ak jasotzen eta garbitzen laguntzen digu. Eskolan ezustekoren bat izatekotan (botaka, kakalarria, odola...) eta lurra edota altzairu edo materiala zikintzekotan, guregana dator garbitzen laguntzera.

Lo-kuluxkara joan baino lehen L1ak urte bateko eta bi urtekoen ohetxoak prestatzen ditu egunero. Lo-kuluxka eta gero erabilitako ohe eta sehaskak jaso eta, beharrezkoa denetan, garbitzen ditu.

Sehaskakoen lo-kukuxka gelan, ordea, sehaskak finkoak dira eta L1ak umeen jardunaldia bukatu ondoren, hurrengo egunerako prestatzen ditu.

Beste pertsona bat ere badator gure eskola garbitzera, honi L2 deritzogu. Bere ordutegia hau da: 13:00-20:00.

Garbitzailearen lana eskola garbi mantentzea da. Arratsaldero, gelak hutsik daudenean egiten du hauen garbiketa.

Jatordua eta gero, L2ak sehasketako tronak eta jantokietako mahaiak, aulkiak eta lurrak garbitzen ditu eta egunero erabilitako adur zapiak garbitzen ditu.

Atezainak eta garbitzaileak ordutegi desberdinak dituztenez, ez dute bat egiten, beraz, beraien artean koordinatzen dute euren lana. Jatorduen uneetan, jolasetan edota ekintza konkretuetan ez dute parte hartzen, ezta interbentziorik egiten ere, momentu horretan gertatzen ari dena ez mozteko.

### **2.4.3 Jantokiko laguntzailea**

Jantokiko umeekin eta hezitzaileekin kontaktu zuzena duen pertsona da. Bere ordutegia 11:30-14:30 da. Eta zuzendari eta eskolako errefortzuarekin eguneroko jantokiari buruzko informazioa trukutzen du. Bere betebeharrak dira:

- Janariaren tenperaturak eta laginak hartzea.
- Jantokia prestatzea eta jasotzea.

### **2.4.4. Haur eskolako kontseilua**

Haur Eskolako Kontseilua eskolako ordezkarien organo gorena da eta kide hauek osatzen dute: eskolako zuzendaria, Udalako zinegotzia edo hark ordezko

izendatzen duen teknikaria, maila bakoitzeko bai familiak bai hezitzaile bat, zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

Arazorik ez badago ikasturtean behin elkartzen da eskolako plana onartzeko eta eskolako gaiez hitz egiteko.

#### **2.4.5. Udal hezkuntza zerbitzua (UHZ)**

Hezkuntza Zerbitzuko harremana egunerokoa da. Informazioa bertako lankideekin telefonoz zein emailaz trukutzen dugu. Honez gain, bi astean behin zuzendariak bilera izaten dute Udal bost eskoletako ideiak, arazoak... elkarrekin konpartituz.

#### **2.4.6. Sareko eskoletako kontseilua**

Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareko Eskola Kontseilua daukagu. Parte hartze organo kolegiatua da eta honako kideak daude bertan ordezkaturak: alkatea edo hark izendatzen duen ordezkari zinegotzia, Kontseiluburua izango dena; Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko burua eta bi zinegotzi; Hezkuntza Zerbitzuko teknikaria; Udaleko administrazio Zerbitzuko burua eta idazkari lanetan aritzen dena; Udal Haur Eskoletako bi zuzendari eta bi familia; Udal haur Eskoletako Zerbitzuetako langileen ordezkaria. Ikasturtean zehar bitan elkartzen da.

#### **2.4.7. Arreta goiztiarreko zerbitzua**

Eskolan behar bereziko umeak (B.B.U) izaten ditugunean Arreta Goiztiarreko Zerbitzuko langileekin lan egiten dugu. Lehenengo bileran, hauek jarraibideak ematen dizkigute umeen estimulazioa ondo egiteko eta hauen beharrak asetzeko eskolan. Batzuetan, hezitzailea bere zentzura doa umeen saiok ikustera eta besteetan, haiek etortzen dira eskolara bertan ikustera. Kurtsoan zehar, korreoz zein telefonoz informazioa trukitzen dugu.

Gelan bertan, ume batek garapen arazoren bat duela sumatzean, hezitzaileok zer behatu dugun zuzendariari jakinarazten diogu. Gero, tutoreok informe bat egin behar dugu Hezkuntza Zerbitzuko arduraduna eskolatik pasatzeko. Handik beharra ikusita, familiarekin elkartzen gara protokoloa hasteko. Gero, Arreta Goiztiarreko Zerbitzuko arduradunarekin harremanetan jartzen gara.

#### **2.4.8. Gizarte zerbitzua**

2017ko irailaren 11n, "Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Udalaren Hezkuntza Zerbitzuen arteko lankidetzaren eta koordinazio-protokoloa ahultasun sozio-ekonomikoaren egoeran eta/edo babesgabetasun-egoeran dauden zein horren arriskua duten 0 eta 3 urte bitarteko haurrei hezkuntza eta arreta emateko"

onetsi zen. Horren ondorioz, eskolako aurre-matrikula egin baino lehen, maila bakoitzeko plaza bat gordetzen da egoera honetan dauden umeentzat. Matrikula bete ondoren, eskolako zuzendariak umearen beharrezko informazioa eta Gizarte langileen arduraduna, psikologoa, hezitzaileak... nortzuk diren jasotzen ditu. Kurtsoan zehar, tutoreok hauekin telefonoz zein emailaz informazioa trukutzen dugu.

“0 eta 3 urte bitarteko haurretan ahultasun- eta babesgabetasun-egoerak detektatzen eta familiarekiko harremanean sakontzea” gida ere badugu. Gelan bertan sumatzen badugu ume bat babesgabetasun-egoeran egon daitekeela, gida honek laguntzen digu kasua aztertzeko. Izan ere, gida horretan kontuan hartu behar ditugun item guztiak agertzen dira eta, informazio hori jasota, Gizarte Zerbitzuak erabakitzen du umeak laguntza behar duen babesgabetasun-egoeran egoteagatik.

#### **2.4.9. Kanpoko kolaborazioak**

##### **- Arte eta lanbide-eskola:**

Arte eta Lanbide Eskolako irakasleekin egiten dugu lan. Urtero umeak jolasteko instalazio bat proposatzen digute eta garatzen dute.

##### **- Antzerki-jarduerak:**

Artea arlo desberdinetan lantzeko asmoz, urtero antzerki talde batekin lan egiten dugu. Honek hiru saioko proposamena aurkezten digu:

- Lehenengoan hezitzaileoi aurkezten digute eta datak eta pausoak zehazten ditugu.
- Familiekin antzerki bat egiten dute.
- Azkenik, ikasturte bukaeran antzezlanak aurkezten digute.

##### **- Folklore Eskola:**

Urtero, azkenengo hiruhilekoan eskolara etortzen dira umeentzako erakustaldia egitera eta Euskal folklorea eta instrumentuak umeei erakustera.

#### **2.4.10. Haur hezkuntzako praktiketako ikasleak**

Arabako Hezkuntza eta Kirol Fakultate eta Francisco de Vitoria Institutuko ikasleek praktikak egiteko aukera daukate Udal Haur Eskoletan. Kurtso bakoitzean, bi ikasle eskolara etortzen dira iraila eta martxoa aldera. Sortzen diren harremanak eta bizitzen ditugun esperientziak oso aberasgarriak eta

onuragarriak dira.  
Batzetan, ikasturtean zehar, Haur Hezkuntza ikasten duten beste lurraldetako ikasle eta haien irakasleen hainbat bisita jasotzen ditugu.

## **2.5. Hizkuntzen tratamendua**

2019-2020 ikasturtetik aurrera gure eskolako hizkuntza-eredua D da (ordura arte B eta D ereduko taldeak genituen). Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) elebiduna den arren, bi hizkuntza ofizialen arteko desoreka ekiditzeko asmoz, euskarari lehentasuna eman behar zaiola uste dugu eta horregatik gure eskolan ahalik eta indar gehien ematen dugu.

Bi hizkuntza ofizialen arteko desorekaz gain, gaur egun Euskal Herrian dugun errealitate berri bat kontuan hartu behar dugu, hau da, gizartea gero eta eleanitzagoa da eta eskola ez dago errealitate horretatik kanpo. Horregatik haur bakoitzaren etxeko hizkuntzari bere tokia emateko beharra ikusten dugu.

Hau guztia zehazteko asmoz ondorengo hauek dira eskolan aurrera eramaten ditugun irizpideak:

- Etxeko hizkuntza euskara ez duten familiekin ere, gutxi bada ere, esaldi soilak edo hitz gakoak euren aurrean euskaraz esatea. Era honetan euskara hurbilagoko hizkuntz gisa aurkezten dugu.
- Idatzitako informazioa bi hizkuntzetan helaraztea.
- Une oro euskara erabiltzea. Harreman guztietan, bai barnekoetan (hezitzaileak, familiak...) bai kanpokoetan (beste Udal zerbitzuak, erakundeak...) eta eguneroko zereginetan erabiltzen dela ziurtatzea. Hezitzaileok gure artean ere euskaraz hitz egitea, haurren eredia baikara.
- Ikasturte hasieran, ume bakoitzarekin etxeko hizkuntza, ahal den neurrian, erabiltzea, segurtasun afektiboa lortu arte.
- Tonu-aldaketak, etenaldiak, keinu eta begiradak kontuan hartzea elkarrekiko ulermena lortzeko. Batez ere etxeko hizkuntza ezagutzen ez badugu.
- Udalak egiten duen Euskara kanpainako informazioa zabaltzea eskolan (Euskaraldia, Mintzalagun, gurasoek euskara ikasteko ikastaroak...).

## **2.6. Baterako hezkuntza eta erantzunkidetasuna hezkuntzan**

Hezkidetzeta edo baterako hezkuntza, pertsonak bere banakotasun eta berezitasunaren arabera, generotik at egiten den hezkuntza da. Hau da, irizpide sexistei jarraiki gizon eta emakumeei egokitutako rol, balio eta jarrerak kontuan hartu gabe haztea da. Azken batean nahi duguna da pertsona autonomoak

haziz, nor bere bizitza proiektuaren jabe izatea eta inguruarekin elkarbizitzan behar dituen gaitasunak garatu ahal izatea; eredu maskulino eta femenino horiek alde batera utziz.

2018-2019ko ikasturtetik aurrera, Amelia Barquinek emandako formakuntzatik abiatuta, eskolan gure hezkuntza-hezkidetzaren lanari buruzko hausnarketa eta azterketa egiten ari gara.

Gutako bakoitzak barne hausnarketa egin du: errutinak, hezitzaileen arteko harremanak, haur eta familiekiko erlazioak... behatu eta gero mikromatxismoak eman daitezkeela ikusten dugu. Garrantzitsua da jakitea non erakusten diren estereotipoak eta hezkidetzaren bermatu nahian hurrengo pausoak ematen hasi gara:

**- Familiekiko harremanak:**

- Eskolako informazioa edo haurraren informazioa ez ematea beti amari (agian beste erreferente batzuk ere egon daitezke ardura hori dutenak).
- Bai familiak bai eskolak haurrarekiko jokoera berdina izatea.
- Komunikazioa eta hizkuntza: tonua eta mezu ez-hezkidetzailleak baztertzea gure komunikazioan. Familiekiko komunikazioan idatzizko hizkuntza ere zaintzea.

**- Haurrekiko harremanak:**

- Haurraren generoa eta genitalak ez lotzea.
- Haurrarekiko komunikazioa zaintzea (tonua, galderak...).

**- Gure arteko harremanak:**

- Gure arteko komunikazioan mikromatxismoak desagertzea.
- Ez-hezkidetzailleak diren mezuak, iruzkinak... entzuten ditugunean elkarri zuzentzea.

**- Espazioak eta denbora:**

- Denontzako espazioak sortzea, kolore neutroak erabiltzea...

## **- Materialak:**

- Eskaintzen zaien materiala anitza izatea (jostailuak, ipuinak, kartelak...), rol eta estereotipoak baztertzea eta hurrei material berdina eskaintzea (bereizketarik ez egitea).

- Ipuinetako, abestietako edo irudietako pertsonaia femeninoen eta maskulinoen analisia egitea eta beharrezkoa izatekotan, narrazioetan generorolen aldatzea.

Analisi sakona egin ondoren, hurrengo “Hezkidetzaren ildoak” erabaki genituen familiei gaia helarazteko:

### **“Zabalgana Haur Eskolako Hezkidetzaren ildoak”**

1. Eskola honetara haurrak etortzen dira eta horregatik ez dago nesken edo mutilen jostailurik, arroparik, kolorerik...
2. Hurrekin itxurari buruzko komentarioak kudeatzen ditugu, besteak beste geletan sartzen direnean eta agurtzen ditugunean.
3. Gatazka bat gertatzen bada irakasten diegu “ezetz”, “utzi”, “ez dut nahi” edo “ez zait gustatu” esaten eta gatazka konpontzeko ez ditugu behartzen haurrak muxuak ematen.
4. “Mikromatxismoekin” adi egoten gara eta saihesten ditugu.
5. 0 urtetik indarkeriarik ez.
6. Guztiok eserita egiten dugu txiza. Horrela irakasten diegu hurrei eta hori da aurrerantzean ere proposatzen dieguna.
7. Tonua edo hitz egiteko era zaintzen dugu, berdin jokatzuz bai neskekin bai mutilekin.

Gai honetan dugun ardura eta sentsibilitatea gurasoei helaraztea da gure helburua. Azaroko bileran gurasoei informazio hau azaltzen diegu eta bi gelen artean dagoen txoko hiztunetan urrian eta martxoan hezkidetzaren ildoak jartzen ditugu begi-bistan egoteko.

### **2.7. Ingurumenaren iraunkortasuna**

Gure hiria, Vitoria-Gasteiz aitzindari izan da jasangarritasunaren gaian 2012an eta “Green Capital” izendatu zuten. Gasteiztarrok orokorrean eta guk bereziki, hezitzaileok izanda, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren garapen



iraunkorrekiko dugun konpromisoa defendatzen dugu, gizarte bidezkoago eta planeta iraunkorrago bat eraikitzen laguntzeko, gure inguru hurbiletik hasiz.

Hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa eta partaidetza lortu nahi dugu. Horretarako gure eskolan ingurumenari ematen diogun garrantziari jarraikiz, honako erabaki hauek hartzen ditugu:

- Erabiltzen dugun materiala murriztu, berrerabili eta birziklatzen dugu.
- Hurbileko bazkari ekologikoa, sasoikoa eta egunean egindakoa eskaintzen dugu.
- Jostailuak berriztatzen ditugu (plastikotik egurrezkoa) baina jostailuak bota beharrean birziklatzerako etxolara eramaten ditugu.
- Familiak ekartzen dituzten paperezko edota plastikozko poltsak berrerabiltzen ditugu umeen amantalak etxera eramateko.
- Iturrietako ura ardua handiz erabiltzen dugu alferrik ez xahutzeko.
- Eskolan bertan birziklatu ezin ditugun materialak (tinta, pilak...) birziklatzeko lekura eramaten ditugu. Hala ere, gero eta pila gutxiago erabiltzen ditugu.
- Ahalik eta janari gutxien botatzen dugu zaborretara.
- Argindarra zentzuz erabiltzen dugu. Argi naturala nahikoa ez denean besterik ez da argia pizten.
- Eskolako berogailua behar ez denean berogailu arduradunaren enpresari jakinarazten diogu itzaltzeko.
- Paperaren erabilera murriztu dugu eta familiei informazioa emateko beste bide batzuk bilatzen ditugu (ahoz eta emailaz informazioa eman, gelako kortxoak erabili...).
- Beste aldetik materialak aldatzen ari gara, material nobleagoak erabiliz, oihalak, artilea, kortxoak... eta plastikozko jostailuak eta altzariak murriztuz.

### **3. HEZKUNTZA-PRAKTIKA**

#### **3.1. Harrera egiteko eta eskola-bizitzara ohitzeko denbora**

Harrera egiteko eta eskola bizitzara ohitzeko aldia haurrentzat ez da erraza. Denbora behar du eskola ezagutzeko, bere tokia bilatzeko, inguruan dituen pertsonekin batera aritzeko, gauzak interesgarriak aurkitzeko, gustura egoteko

eta gozatzeko. Azken finean, konfiantza eta segurtasuna lortzeko epe bat behar du.

Prozesu horretan zuzenean parte hartzen duten eta oinarrizkotzat jotzen ditugun eragileak honako hauek dira:

- **Haurrak**, eskolara lehen aldiz joaterakoan, familiarterako mundu seguru eta ezagunetik, erabat ezezagun zaion egoera bati egin behar dio aurre (pertsone berriak, zeregin berriak, espazio berriak...).

- **Familiak** banaketa nola bizitzen duen, eragina du haurraren. Haurrak inguruko sentimenduak bereganatzen ditu: tristezia, segurtasun eza, lasaitasuna eta konfiantza. Sentimendu kontraesankorrak sortu ahal zaizkie gurasoei (beldurrak, kezkek, konfiantza eza...) eta honek askotan haien haurra eskolara eramatean ongi egin duten ala ez pentsatzera eramaten ditu (ongi egongo da?, negarrez egongo da?).

- **Hezitzaileak** ere, haur bakoitzaren errealitatera egokitu behar du, erritmo indibidualak aztertuz eta pixkanaka talde erritmoetara gerturatuz.

Epe hau bereziki zaintzen dugu eskolan eta urteak daramagu gai honi buruz hausnarketa egiten, prozesua ahalik eta samurragoa bihurtzeko asmoz.

## **NOIZ**

Guretzat gurasoen inplikazioa ezinbestekoa da une honetan haurri laguntzeko eta, batez ere, klaseko momentu eta haurraren aurrerapenaz gozatzeko. Honek esan nahi du, gurasoekiko harremana funtsezkoa dela (behaketan eta elkarrekiko ezagutzan oinarritutako harremana). Harreman hau finkatzeko haurra eskolara etorri aurretik momentu garrantzitsuenak hauek dira:

- **Aurre matrikula egin baino lehenago (urtarriletik maiatzera)**. Familiak eskola ezagutzera etorri gero, zuzendariarekin du lehenengo kontaktua. Une hau oso garrantzitsua da familiak eskolaren lehen irudia lortzen duelako eta hor sortzen zaizkiolako lehen aurreikuspenak.

- **Maiatzean** aurre matrikula egiten dutenean.

- **Matrikulazio egiteko unean (ekainaren bukaeran)** familiak banaka etortzen dira. Zuzendariak lehenengo informazioa eman eta lehenengo zalantzak argitzen dizkie, gurasoei segurtasuna ematen saiatuz. Momentu horretan zuzendariak lehenengo bileraren deialdiaren berri ematen die.

- **Uztaileko antolamenduaren egunetan** hezitzaileok harrera garaia antolatzen dugu.

- **Uztailaren bukaeran** gela bakoitzeko tutoreok ikasturteko lehenengo bilera egiten dugu eta harrera garaiko prozesua azaltzen diegu: nola antolatzen den, antolakuntza horren zergatia, irailean prozesuan laguntzeko zenbait iradokizun... Haurrari buruzko informazioa jasotzeko galdetegiak (goizekoa, jantokikoa), ematen dizkiegu. Galdetegi horiek, irailean, banakako elkarrizketarako beteta izatea eskatzen diegu. Helburua informazioa helaraztea eta, batez ere, gureganako konfiantza lortzea da.

- **Iraileko lehenengo astean**, familia bakoitzarekin beren seme-alabekin banakako elkarrizketa egiten dugu tutoreok. Elkarrizketa horretara haurra ere etortzen da, horrela haurrak hezitzaileak, gela eta bertan dauden gauza guztiak ezagutzeko aukera ezinhobea dauka. Hezitzaileok eta familiak informazioa trukatzear gain (familiek betetako galdetegietaz laguntzendugu elkar), haurra bere guraso eta hezitzailearen arteko hurbiltasunaren lekuko da.

- Umeak, normalean **irailaren bigarren astean** gutxi gora-behera hasten dira. Une honetan eskolan bazkaltzen duten haurren familiek Sansomendiko sukaldariarekin eta eskolako jantokiko arduradunarekin bilera dute informazioa helarazteko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko asmoz.

- UHZk ezartzen du: harrera garaiak hiru aste irauten duela, gutxienez ordu beteko saioak direla, pixkanaka tarte horiek zabalagoak izango direla, norberak egin behar duen ordutegia egin arte eta bestelako datak eta denborak. Horiek alda ditzakegu haur bakoitzaren garapenaren egoeraren arabera.

- Umea beranduago hasiz gero, prozedura bera jarraitzen da.

## **NON**

Harrera garaia umearen gelan bertan egiten dugu.

Familiantzako txoko txiki bat prestatzen dugu hasieran gelan, sofarekin edota aulki batzuekin laguntza egunetarako. Egun batzuk pasa ondoren txoko hori gelatik ateratzen dugu, korridoreetara zein aretora (hezkuntza aldizkari batzuk eta artikulua dituzte eskura).

Planteatzen dugun espazioaren antolakuntza oso egokia da esplorazio jokabidearen aktibaziorako. Gela eroso, arriskuetatik babestua, erakargarria... izanda, guk horretan egin beharreko lan bakarra atxikimenduaren transferentzia da.

## **HELBURUAK**

- Atxikimendua (harreman afektiboa) sortzea, haurrari konfiantza eta segurtasuna ematen diona eskolan eroso egon dadin.

- Haurraren eskolarekiko lehenengo esperientzia atsegina ahalbidetzea, atsekabea saihestuz eta konfiantza eta segurtasun giroa eskainiz.
- Familia eta eskola arteko harreman sendoa eraikitzea eta prozesu honetan gurasoen parte-hartze aktiboa sustatzea.
- Etxea eta eskolaren arteko lotura sortzea eta gure umeak apurka-apurka eskolara egokitzea.
- Umea prozesuaren protagonista izatea eta inizatiba hartzea.

## **HEZITZAILEON ROLA**

- Giro lasaia bideratzen dugu eta horretarako ingurua antolatzen dugu eta esku-hartze momentuak zaintzen ditugu.
- Haurrarekiko eta familiarekiko errespetua adierazten dugu.
- Familiarekin informazioa trukatzeko dugu bai iristean bai irtetzerakoan.
- Haurraren eta familiaren beharrei erantzuten diegu.
- Gelaren barruan, gure umearekiko jarrera itzaroteko jarrera da, gorputza haurraren mailan kokatuta (hurbil, adi eta eskuragarri). Atxikimendua lortzeko, umeen beharrei erantzuna eman behar zaie, besoetan hartu, afektuan eta errespetuan oinarritu, egoera berri batera ohitu arte.
- Gure lana umearekin eta gelaren barruan hiru ardatz funtsezkoetan oinarritzen gara (isiltasuna, begirada eta gorputz harremana).
- Gela barruan gurasoentzako espazioa prestatzen dugu. Era berean, elkartze gela prestatzen dugu, gelatik ateratzen direnean, gurasoek denbora eta esperientzia horiek elkarren artean partekatu dezaten.
- Harrera garaiaren prozesua behatzen dugu (talde zein haur bakoitzeko portaerak aztertzen du erabilitako metodologia egokia den jakiteko). Jasotako informazioarekin txostena idazten dugu.
- Bakoitzaren erritmoa errespetatzen dugu, garapen-une ezberdinetan daudela gogoratzen dugu, bakoitzaren banakotasuna eta aurrerapausoak baloratzen dugu. Gure aldetik itxaropen, konfiantza eta onarpen jarrera dugu.
- Egunero material desberdin, antolatuta eta eskuragarria aurkezten dugu.

## KOMUNITATEAREN ROLA

### FAMILIA

Uztailean familiarekin egiten dugun bileran, harrera garaiari buruzko informazioa emateaz gain, iradokizun hauek helarazten dizkiogu bere rola kontuan hartzeko (badira adinaren arabera direnak baina guztiak dira baliagarriak):

- Eskolaren irudi positiboa sustatzea: eskolako inguruetik ibiliz, laster bertan hasiko dela aipatuz, dibertigarria izango dela esanez. Jokabideak zuzendu nahian mehatxurik ez erabiltzea.
- Errutinen ordutegiak egokitzea.
- Haurraren erritmoa errespetatzea, haur bakoitza mundu bat delako eta hastapen garaia ezberdina izan daitekeelako.
- Hezitzailearekin komentatzea du nola dagoen umea etxean, nola egin duen lo edo sortzen zaizkion kezkek edozein egoeratan.
- Umea agurtzerakoan gogoraraztea gero etorriko dela, egia esatea eta agurra gehiegi ez luzatzea.
- Haurrak segurtasuna eman diezaiokeen objekturen bat (txupetea, panpina...) ekar ahal izatea.
- Ume bakoitzak egokitze bat duela onartzea eta prozesu bakoitzak gorabeherak dituela ulertzea.
- Umearen sentimenduei hitzak jartzea. Negar egiten badu, ulertzen duela baina lanera joan behar duela esatea.
- Hurrengo egunean gertatuko dena esatea eta egunean bertan gogoraraztea ("korridorean izango naiz", "kanpora joango naiz eta minutu batzuk barru berriro sartuko naiz"...).
- Nahiz eta bere seme-alabek jolasteko eskatu, ez izatea bere jolasaren dinamizatzaileak . Iniziatibarik ez hartzea, bere eskaerari erantzun sinplea ematea.
- Haurra hezitzailearengana edo gelakidearengana gerturatzera ez behartzea. Haurrak pertsona berriak ezagutzeko denbora behar duela onartzea.

- Gurasoak lasai egotea, haurrak sentimendu hori bereganatzeko.

## **PROZEDURA**

UHZk ezarritako jarraibideek abiatuta, prozesua era honetan antolatzen dugu:

Lehenengo egunean haurra bere senitartekoarekin etortzen da eta pertsona hori eskola eta umearen arteko lotura da. Horretarako oso inportantea da familiei lasaitasuna eskaintzea, gurasoak lasaitasun hori ere beraien umeei helarazteko. Hasiera batean, umearekin datorren heldua gela barruan egoten da baina, pixkanaka, gelatik ateratzen hasten da (azkenengo fase hau luzatu edo moztu ahal dugu egoeraren arabera).

Ez dira gelako guztiak batera sartzen. Ume talde txikiak antolatzen ditugu eta era progresibo batean, taldeak handiagoak dira gela osatu arte. Taldeen txandak antolatzen ditugunean tarte bat uzten dugu familiekin hitz egiteko, agurra eta harrerak lasaitasunez egiteko eta haur bakoitzaren prozesuaren berri emateko.

Apurka-apurka, umea bere momentuan eta bere erritmoa izanez, gurasoengandik urruntzen da eta bere erreferentearen gabeziaren ordez etorkizunaren ordezeko elementuak eraikitzen ditu.

Prozesu osoan zehar, haurra prest ikusten dugunean, erreferentea desager daiteke. Eta behaketaren bidez ikusten dugu zein den unerik egokiena hurrengo aurrerapausua proposatzeko, hau da, eskolan ematen duen denbora luzatzeko edota bazkaltzen edo lo egiten geratzeko momentua den... Haur bakoitzaren moldaketaren arabera prozesua bera ere moldatzen joaten gara.

Aste hauetan zehar haurraren eskolarekiko interesa pizten eta aurrerago sendotzen diren harreman afektiboak gauzatzen hasten dira. Egunez egun, haur eta familia bakoitzaren prozesua euren beharretara moldatzen dugu.

Nahiz eta harrera garaia hilabete baterako antolatu, normalean, lehenengo hiruhilekoa dirau.

## **BEHAKETA**

Egunero behaketak eta xehetasun esanguratsuenak jasotzen ditugu. Garai honen amaieran, adinari egokitutako dokumentu zehatz batean islatzen dugu aipatutako informazioa. Dokumentazio hori urtero birpasatzen dugu hezitzaileen iradokizunak eta iritziak kontuan izanda.

Behatzen duguna:

- Haurraren mugimenduak, jarrera, erantzuna ...
- Familiaren sentimenduak, portaera eta gurekiko harremana.
- Hezitzaileok gure koordinaziorako denboran gure esku-hartzeari, materialari, espazioari buruz hitz egiten dugu. Jarraipenak eta aldaketak adosten ditugu.

## **EBALUAZIOA**

Hasierako egoera eta oraingoa aztertzen da eboluzioa erregistratzeko. Gure presentzia eta guk proposatutakoa, espazioa, txokoak, eta bere distribuzioa, materialak (kantitatea, kalitatea eta umearen beharraren egokitzea) eta umearen erantzuna ebaluatzen dugu.

Umearekin eta familiarekin daukagun harremana ere aztertzen dugu, ea lotura afektiboa eta konfiantza lortzen ari garen jakiteko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

Harrera garaian erabilitako estrategiak eta funtzionamenduaren aldaketak kontuan izango ditugu hurrengo ikasturtetarako.

### **3.2. Eguneroko bizitza antolatzen duten ardatzak**

#### **3.2.1 Harrera/agurra**

Umea egunero familiako testuingurutik eskolako testuingurura pasatzen da eta, momentu horiek bereziki zaintzen ditugu.

Eskolara iristean, haurrak banan-banan jasotzen ditugu hezitzaileok. Haurraren, familiaren eta eskolako hezitzaileen artean harreman pribilegiatuan oinarritutako uneak sortzen ditugu, ongi etorria adieraziz eta harrera eginez, umea gizaki bakar, maitatua eta onartua senti dadin.

Eskolara sartzeko eta eskolatik irteteko orduak malguak dira, familien premiei erantzuteko. Hala, haurra lasai iritsi eta joaten da eskolatik. Elkarrizketarako jarrera erlaxatuari esker, haurrak eskola eremu segurua dela sentitzen du.

Idatzizko informazioa ere zaintzen dugu.

Harrera-agurrak kurtsoaren hasieran finkatzen den gela batean dira. Honek, bai umeari, bai familiei, ziurtasuna ematen die.

Maila emozionalean esangura handia duten uneak direnez, hezitzaileok modu honetan antolatzen ditugu:

### **3.2.1.1. Harrera**

#### **NOIZ**

Gure eskola 08:00etatik 16:00etara zabalik dago. 08:00etatik 09:30era sarrera bakarra, zabala eta malgua dugu. Denbora tarte horretan, familiek malgutasuna dute nahi duten orduan sartzeko. Beraz, haur bakoitza jasotzeko denbora dugu, normalean tarteka etortzen baitira. Sarreretan familia batzuek denbora luzeago pasatzen dute gelan haurrarekin. Baina agurtzeko unea ez dugu luzatzen.

Harrera unea lasaitasunez egiten da, denbora ematen dugu informazioa trukatzeko.

#### **NON**

Sarrerak eskolako hiru gunetan egiten dira, umeen adinaren arabera banatuta.

Ahal den heinean haur bakoitzaren harrera bere gelan egiten dugu. Tutorearen sartzeko ordua izan arte, beste hezitzaile erreferente batek jasotzen du bere gelan. Gela bakoitzeko hezitzaile bat iritsi denean, haur bakoitza bere gelan jasotzen dugu.

Gela espazio irekia da, familiak bertan sartu eta mugi daitezke. Gela batzuetan sofa bat dago une hau burutzeko.

#### **HELBURUAK**

- Haurren ongizatea bermatzea.
- Haurra eta familia eskolara iristean, eroso sentitzea eta poza eta gainontzeko emozioak ateratzen uztea.
- Eguneroko une honetan haurra protagonista izatea eta bere erritmoa errespetatzea.
- Familiarekiko banaketa leuna izatea.
- Gurasoek eman behar diguten informazioa jasotzea.
- Familiarekin harremanak sendotzea eta gureganako segurtasun eta konfiantza sentimendua sortzea, beraiek dituzten zalantzak edo beldurrak argituz.
- Une berezi izatea eta elkar agur egiteko unean jendetza saihestea.



## **HEZITZAILEON ROLA**

- Gurasoei denbora ematen diegu haurra agurtzeko eta berarekin hitz egiteko. Familia eta haurren espazioa ez dugu inbaditzen. Hezitzaileok aurreratu beharrean agurrari bukaera ematen, lehenengo aukera gurasoei eskaintzen diegu.
- Jarrera lasaia eta hurbila dugu, behar den denbora eskainiz, kontziente izanez gehiago sakondu behar den gai bat azaltzen bada beste denbora eta espazio batera bidera dezakegula.
- Komunikazio arauak bermatzen ditugu: begietara begiratu, entzute aktiboa izan, ahozko hizkuntzari eta gorputz hizkuntzari arreta jartzen diogu.
- Haurren altueran jartzen gara. Tonu goxoa, hurbila eta naturala erabiltzen dugu.
- Ikasturte hasieratik guraso guztien izenak ikasi eta erabiltzen ditugu.
- Bi tutoreak bagaude sarreran, batek harrera egiten du, eta bestea taldearekin geratzen da. Bakarra dagoenean arreta eskaintzen dio bai taldeari, bai familiari, begirada periferikoa izanez.

## **KOMUNITATEAREN ROLA**

### **FAMILIA**

- Hezitzailearekin informazioa konpartitzen du (nola pasatu zuen atzoko arratsaldea eta gaua...).
- Haurrak, eskolan gelditu nahi ez badu, ez diogu inoiz helduari besoetatik kenduko. Bera izango da, haurra gure besoetan edo lurrean utziko duena.
- Familiak joan baino lehen beti seme-alabarekiko agurra egiten du, maitekiro eta gehiegi luzatu gabe.

### **PROZEDURA**

Eskolan harrera eremuka antolatzen dugu. Eremu bakoitzean 4 hezitzaile erreferente daude eta hauen ordutegiak harrerak zaintzeko asmoz ondorengo eran antolatzen ditugu:

- Lehena 08:00etan sartzen da eta 2 geletako haurren harrera egiten du, normalean berea ez den gelan egiten du harrera. Horrela bere gelakoek tutorea

dute eta tarte horretan sartzen diren beste gelako umeak euren espazio ezagunean sartzen dira.

- 08:30ean beste gelako tutorea sartzen da eta elkarrekin egoten dira 09:00ak arte.

- 09:00etan haur bakoitza bere gelara doa bere tutorearekin.

- 09:15etik 09:30era azken tutorea sartzen da.

- Gelako tutoreez gain eskolako errefortzuek sarreretan laguntzen dute.

Sarrerak horrela antolatzeak momentu hauek lasaiak izatea egiten du. Familiekin informazioa partekatzeko denbora daukagu, gela batzuetan gainera informazio hori idatziz jasotzen dugu. Gelak zabalik daude eta hala nahi izatekotan gurasoak gelan sartzen dira edo gu hurbiltzen gara jasotzera.

## **BEHAKETA**

- Behaketa zuzena eta egunerokoa da: familia, haurra eta hezitzaileena (erreakzioak, jarrerak, rolak, bizipenak).

- Behaketaren erregistroa koaderno batean egiten dugu.

- Ikasturtean zehar berrikusten dugu eta talde orokorrera gure kezka eta proposamenak eramaten ditugu. Antolakuntza hau urte askotako esperientziatik sortua da eta aproposa ikusten dugu. Dena den, eraldatzeko prest gaude betiere familia eta haurren beharrei erantzun egokia emateko asmoz.

## **EBALUAZIOA**

Bikote pedagogikoaren behaketen eta hezitzaile taldearen bileren bitartez, haur bakoitzaren egoera, bizipenak eta harreraren antolamendua zehaztu eta baloratzen dugu.

### **3.2.1.2. Agurra**

## **NOIZ**

Irteerako ordutegiak hurrengoak dira:

- 12:30etik 13:00etara: goizekoak.

- 13.30etik 13:40ra: jantokikoak baina lo-kuluxkarik gabekoak.

- 15:30etik 16:00etara: eskolan lo-kuluxka egiten dutenak.
- Sehaskako geletan irteerak malguagoak dira eta 12:30etik aurrera edozein orduan atera daitezke 15:00etatik 15:30era izan ezik.

## **NON**

Ahal den heinean haur bakoitza bere gelan agurtzen dugu.

## **HELBURUAK**

- Haurrak agurra plazeraz eta lasaitasunez bizitzea.
- Haurraren ongizatea eta ziurtasuna babestea.
- Haur bakoitzaren erritmoak errespetatzea.
- Haur eta familia bakoitzari behar den denbora eskaintzeko antolamendua sortzea.
- Une berezi bihurtzea eta elkar agur egiteko unean jendetza saihestea.

## **HEZITZAILEON ROLA**

- Familieei lasaitasuna transmititzen diegu.
- Giro lasaia eta goxoa sustatzen dugu.
- Tonu hurbila erabiliz komunikazio eraginkorra ezartzen dugu (ahozko komunikazioa/gorputz jarrera/keinuak).
- Haurra pozik eta lasai agurtzen dugu.
- Egunari buruzko informazioa, bai ahozkoa bai idatzizkoa, helarazten dugu.
- Agurra egiteko momentuan, batzuetan gertakari desatseginaren bat (koska, erorketa, kolpea...) kontaktzen diegu, baina beti kontuan izanda oso inportanteak direla mezu baikorrak.
- Bi tutoreak bagaude irteeran, batek agurra egiten du, eta bestea taldearekin geratzen da. Bakarra dagoenean arreta eskaintzen dio bai taldeari, bai familiari, begirada periferikoa izanez.

## KOMUNITATEAREN ROLA

### FAMILIA

- Hezitzaileen informazioa eta jarraibideak kontuan hartzen ditu.
- Agurra ez du asko luzatzen.

### PROZEDURA

Esan dugun bezala hiru une ezberdin ditugu egunean zehar agurra egiteko.

**12:30etik 13:00etara** goizeko irteera da. Irteeretan hezitzaile erreferente bat dago (ume kopuruaren arabera antolaketa hau alda daiteke) eta bestea jantokira doazen haurrekin doa. Ordu erdi izateak agurra lasaia izateko aukera ematen digu. Familia bakoitzarekin komentatzen ditugu eguneko gora-beherak, informazio hau bakoitzak idatziz ere jasotzen du gelatik kanpo ditugun apal batzuetan. Agurra bakoitzak bere gelatik egiten du eta haur gutxi geratzen direnean, beste gela batera joaten dira. Honela hezitzaile bat jantokira laguntzera doa.

**13:30eko** agurra egiteko 10 minutuko malgutasuna dago. Agurra motza da, batez ere lotara geratu diren haurren loa errespetatzeko, baina besteek bezala eguneroko gorabeheren informazioa jasotzen dute, ahoz zein idatziz.

**15:30etik 16:00etara** bi geletako umeak daude gela batean tutore banarekin. Berrito ere ordu erdiko malgutasuna dute haien bila etortzeko.

Haurra esna dagoen kasuetan, hezitzaileak hitzez aurreratzen dio etxera joateko unea iritsi zaiola eta bere bila datorren pertsona etortzen dela. Gurasoek badakite, ohiko den pertsona etortzen ez denean, guri eta haurrari jakinarazi behar digutela. Haurra agurtzen dugu eta familiari haurrak eguna nola pasa duen azaltzen diogu. Informazio hau, idatzita ere badago bere kutxatilategian.

Orokorrean, 15:30erako ume gehienak prest egoten dira irteerarako. Dena den, sehaskako geletako umeak eta etxeko aulkitxoetan lo egiten duenak lo gehiago egin nahi izanez gero, bere bila datorrenak goxo-goxo esnatzen du edo horrela eramaten du nahi badu, baina une horretatik aurrera berak hartzen du haurraren ardura.

Bestalde, ahal bada guztion artean gela jasotzen dugu eta giro lasaia sortzen dugu, abesti bat abestuz, ipuin bat kontatuz... edo bestelako ekintzak eginez.

## **BEHAKETA**

- Egunerokoa da, haurra, familia eta gure jarrera behatzen dugu.
- Datu garrantzitsuenak haur bakoitzaren erregistroan hartzen ditugu.
- Agurtzerakoan giro lasaia dugun aztertzen dugu, bestelako aldaketak egin ahal izateko.
- Ikasturtean zehar irteeraren antolakuntza berrikusten da eta talde orokorrera gure kekek eta proposamenak eramaten ditugu. Antolakuntza hau urte askotako esperientziatik sortua da eta aproposa ikusten dugu. Dena den, eraldatzeko prest gaude betiere familia eta haurren beharrei erantzun egokia emateko asmoz.

## **EBALUAZIOA**

Bikote pedagogikoaren behaketetan eta hezitzaile taldearen bileretan, haur bakoitzaren egoera eta bizipenak eta harreraren antolamendua zehaztu eta baloratzen dugu.

### **3.2.2. Otorduak**

2019. urtean, Vitoria–Gasteizko UHZak jantoki ekologikoen proiektua martxan jarri zuen. Honetarako, sukaldeetako langileei, eskoletako zuzendariari eta hezitzailei formazioa eskaini ziguten. Bertan, fruta postrean baino hamaiketakoan ematea onuragarriagoa zela baieztatu genuen. Orain arte ematen zen menuarekin alderatuta barazki, fruta eta zereal kantitatea handitu dugu, eta animalia-jatorriko proteina kopurua, berriz, jeitsi dugu.

Menu osasungarria eskaintzen dugu, kalitatezko produktuekin eginda, elikagai ekologikoak, freskoak, garaikoak, 0 kmkoak eta jasagarriak.

Elikadura elikagaiak jatea baino gehiago da. Harremanak egiteko, ikasteko eta sozializatzeko nahiz kulturarako unea ere bada. Jateko unea atsegina izan dadin ahalegintzen gara.

Jatorduak zerikusi handia du haurraren zaintzarekin. Haurrak behar fisikoak ditu, elikatu behar du, garbiketa behar du eta atsedena behar du. Momentu hauek kalitatezkoak izan eta plazerean oinarrituak egon behar dute harremana, arreta eta errespetua sortzeko.

Eguneroko errutina ezartzea baliagarria da haurra denbora egituratzen joateko, eta segurtasuna eta estruktura tenporala baimentzen dio.

Intolerantziekin edo alergiekin lotutako beharrei erantzun ahal izango zaie, kasu bakoitzaren eskakizunei Udalaren Haur Eskoletako sukaldeetan dauden baliabideekin erantzun badaiteke, betiere. Aldaketa horiek egiteko Osakidetzak egindako txosten medikoa aurkeztu behar du familiak. Txosten horrek inguruabarrak jaso beharko ditu.

Atal hauei edukiera eman baino lehen, eskolan **gosaririk** printzipioz ez ditugula ematen esan beharra daukagu. Gure eskolako lantalde osoak gosariak ez emateko erabaki du, familian egin beharreko zeregina delakoan.

Gure ustez, gosaria ez da janaria hartzea bakarrik. Gosaria etxeko berotasuna eta senideekiko atxikimenduari lotuta dago. Gau osoa lo pasa ondoren, haurra gose esnatzen da eta hartzen duen janariarekin batera ama, aita edo beste senide baten maitasuna eta arreta eskuratu ere egiten du.

**Hamaiketakoa** goizeko garrantzitsuenetariko errutina bat da. Eskolan argi daukagu jakia jatea baino gehiago dela. Gizarteratzeko faktore nabarmenatariko bat da, modu independente, garbia eta egokia elikatzeko gaitasuna da. Hamaiketarako ematen diegun fruta astean bitan Sansomendi eskolatik ekartzen digute.

Guk eskolan bertan sukaldetik ez daukagunez, **bazkaria** egunero Sansomendiko Udal Haur Eskolatik ekartzen digute garraio isotermoen bidez.

Ikasturte hasieran familia bakoitzari hilerako beroaldiko menua ematen diegu, egunero eskolan zer jango duten alde zaurretik jakin dezaten. Prozesu bera egiten dugu hotzaldiko menuarekin. Horretaz gain, aste bakoitzeko menua jantoki ondoko kortxoan dago erakusgai. Bertan ere, menuan aldaketaren bat egonez gero gurasoei jakinarazteko oharra jartzen diegu.

Gure eskolan hiru menu mota daude: birrindua, semi-birrindua eta osoa haurraren garapenaren arabera.

### 3.2.2.1 Hamaiketakoa

#### NOIZ

0-3 tarteko umeak ditugunez momentu ezberdinetan egiten dugu adin bakoitzarekin. **Sehaska geletan** umearen eskariari erantzuten diegu eta pixkanaka, hurrengo mailatan, ordutegi zehatzagoak egiten joaten gara. Haurrak markatzen du behar duen denbora.

**1- 2 urteko gela** bakoitzak erabakitzen du noiz hartu hamaiketakoa. Umea noiz etortzen den eta familien informazioaren arabera (noiz eta nola gosalduek duen)

eta kontuan hartuta bazkaria 12ak aldera hasten dela, tutoreok eskaintzen diogu hamaiketakoa goizean zehar. Normalean 10:30ak aldera izaten da.

## **NON**

Umearen garapen eta adinaren arabera, magalean, tronan, hamakan, lurrean eserita edo mahai eta aulki txikietan eserita egiten du. Hasiera batean bakarka eta ondoren talde txikian.

Hezitzaile bikoteak, taldearen ezaugarri eta beharrak kontuan izanda, hamaiketakoa emateko esparrurik egokiena erabakitzen du. Izan daiteke gelan bertan ematea edota eskolako beste espazioetan: jantokian, aretoan, patioan...egoeraren arabera.

## **HELBURUAK**

- Haurraren beharrak asetzea (gosea, egarria eta ziurtasun emozionala).
- Fruta desberdinak dastatzea eta zapore, testura eta kolore berriak sartzea.
- Une lasaia eta atsegina izatea. Kalitatezkoa eta plazerean oinarritutako momentua izatea.
- Haurra bere ekintzaren motorea izatea: izaki aktiboa (motrizitate fina eta begi-eskuaren koordinazioa lantzea).
- Higiene ohiturak eskuratzea: haurra modu garbian, egokian eta autonomoan jateko gai izan dadin.
- Haurraren autonomia eskuratzeko prozesua ahalbidetzea eta norbanakoari prozesu horretan ondoan gaudela sentiaraztea.
- Hezitzailea eta haurraren arteko konfiantzazko harremana sortzea.
- Jan eta gero aurpegia zikina duela jakitea eta garbitzeko beharra sentitzea.
- Elikadura ohitura onak eskuratzea, txikitatik jatorduetako arauak ezagutzea eta pixkanaka ulertzen joatea. Jakin egin behar du jatordua ez dela jolas egiteko unea, ezin duela ahoa beteta duenean hitz egin, eserita jan behar duela, ezin duela besteen janaria ukitu...
- Arau hauek onartzea, barneratuz joatea eta horien zergatia ulertzea. Arau sozial horiek guztiak ezagutzea, bere segurtasun sentimendua indartzeko baliagarriak baitira.

- Elikagai sasoikoa, gertukoa eta ekologikoa bermatzea.

## **HEZITZAILEON ROLA**

- Hamaiketakoaren ordua heldu dela ahoz adierazten dugu.
- Haurra eskuak garbitzea ahalbidetzen dugu.
- Ingurune segurua, zaindua eta behar duen materiala eta fruta prestatzen dugu.
- Zaintza une horretan haurrari dedikazio osoa eskaintzen diogu. Rol lasaia, abegikorra eta haurrari parte hartzeko aukera ematen diona.
- Hamaiketakoa eskaintzen diogu behartu gabe.
- Haurra modu garbian, egokian eta autonomoan jateko gai izan dadin eragiten dugu (prozesua da).
- Umearen erritmoa errespetatzen dugu eta lorpenak indartzen ditugu.
- Egunero familiari hamaiketakoaren inguruko informazioa, bai idatziz, bai ahoz helarazten diogu.
- Erritualak eraikitzen ditugu, haurra ziur sentitzeko.
- Errespetuzko jarrera, arreta eta kalitatezko harremana ezartzen dugu.
- Komunikazio egokia erabiltzen dugu: tentu, begirada, ahots tonua, hitz egin eta ixiltasun tarteak, haurrari gertatzen zaiona azaltzea, keinu leunak, heltzeko modu maitekorra, baimena eskatzea, entzutea eta denbora ematea.
- Hezitzaileen arteko koherentzia izaten dugu.
- Umearen aktibitatea errespetatzea eta momentu horiek helduarekin kolaboratzeko eta bere inizatibaz parte hartzeko aukera ematen diogu.
- Umearen seinaleetara adi gaude.
- Jantokiko arauak (txandak, materialak, espazioa, tresnak...) errespetarazten dizkiogu.



## **KOMUNITATEAREN ROLA**

### **FAMILIA**

- Familiak betetako hasierako elkarrizketan haurraren hamaiketakoaren informazioa luzatzen dugu (ea fruta jaten duen, zein, nola, irensteko arazorik duen, eta abar) eta arazoak egonez gero, zer egin eta nola bideratu partekatzen dugu.

- Sehaskakoen gelan egunero ekartzen du etxetik hamaiketakoa.

- Gurasoek eta eskolak elkarlanean egiten dugu eta haien seme-alabei gosari, hamaiketako, bazkari, askari eta afari osasungarriak eskeintzea onuragarria izango litzateke.

### **PROZEDURA**

Ikasturte hasieran familiari elikatze-prozesuaren irizpideak azaltzen dizkiogu: nola eramaten dugun aurrera (ez dugula behartzen umea jatera, giro lasaia dela hamaiketako momentua), hezkuntza arrazoiak, nola jokatzeko dugun....

Erritual batzuk ezartzen ditugu, gela bakoitzak zer egin aukeratzen du. Ingurunean haurraren ziurtasuna bermatzen dugu (haurra ziur, lasai egon behar da jan ahal izateko).

#### **Sehaskakoen geletan:**

Etxetik ekarritako hamaiketakoa prestatzen dugu. Adur-zapia erakutsi eta gertatuko dena aurreratzen diogu. Behin jarrita, gure altzoan edo tronan esertzen dugu, bere garapenaren arabera. Janariarekin jolasten hasiz gero, asko mugitu edo interesik erakusten ez badu, hezitzaileak denbora hori amaitutzat ematen du eta beranduago eskaintzen dio.

#### **1-2 urtekoen geletan:**

Udaleko dietista-nutrizionistek, dieta orekatuaren barruan, haurrari hamaiketakoan fruta eskaini behar diogula erabaki dute. Hainbat motatako fruta daukagu, urte-sasoikoa, ekologikoa eta 0 km-koa. Hori egiten dugu urtebetetzeetan izan ezik. Egun hauetan umeak etxetik ekarritakoa eskaintzen dugu.

Haurrari erritualen bidez adierazten diogu hamaiketakoa egiteko momentua dela. Beti gela edo jantokiko toki berean prestatzen da fruta. Tutoreok autonomia daukagu hamaiketakoa nola egin aukeratzeko (haien taldeko umeen ongizatea kontuan izanda). Hau da, hezitzaileok zuritzen dugu eta eskaintzen

diogu eta berak erabakitzen du zer eta zenbat jan. Batzuk ume bakoitzarentzat katilu bana prestatzen dugu, beste batzuk plater bat prestatzen dugu umeek hortik hartzeko, besteok aldiz, fruta bakarra eskeintzen dugu edo mazedonia.

Umeak bere garapenaren arabera magalean, korroan edo mahaian hartzen du fruta. Halaber, haurraren erritmoak errespetatzen ditugu eta ez dugu inoiz jatera behartzen.

Hamaiketakoan ura ere oinarrizkoa da. Egari denean ere errespetatzen dugu haurra. Gorputzak beharrezkoa du ura, eta garrantzitsua da haurra egari denean ura eskuratzeko aukera izatea.

Haurrak jaten duen bitartean bi hezitzaileok gaude eta haurrak ekintzan arreta jartzen laguntzen diogu.

## **BEHAKETA**

- Eguneroko behaketa zuzena egiten dugu: haurraren garapena, autonomia, hezitzailearen parte-hartze baita espazioaren antolakuntza ere, momentu hau atsegina eta lasaia izan den ala ez.

- Antolamenduaren alde onak eta txarrak ikusten baditugu, hezitzaile taldera eramaten ditugu. Momentu hauek nola bizitzen diren eta erabiltako materialak aztertzen ditugu.

## **EBALUAZIOA**

Haur bakoitzaren jarraipena egiten dugu (nola egoten den errutina honetan, jan/probatu duen ala ez, asetu den, arauak betetzen dituen, gustura egon den...). Tutoreen arteko behaketa eta hitz egitearen bitartez, haur bakoitzaren egoera, bizipenak zeintzuk diren zehazten ditugu, baloratzen ditugu.

Hezitzaileen lana (prestakuntza, jarrera, bikoteren arteko koherentzia, umearen erritmoa errespetatzen dugu, familiarekiko informazioa...) eta espazioak, tresnak eta giroa ere ebaluatzen ditugu banan-banan, bikoteka edota taldeka ebaluatzen ditugu.

### **3.2.2.2 Bazkaria**

## **NOIZ**

0-3 tarteko umeak ditugunez ezberdin egiten dugu adin bakoitzarekin. Sehaska geletan umearen eskariari erantzuten diogu eta pixkanaka, hurrengo mailetan, ordutegi zehatzagoak ditugu. Haurrak markatzen du behar duen denbora.

### **Sehaskakoen geletan:**

Umearen ordutegia (gaueko orduetan hartu duen azken edozkitzea), beharra eta erritmoa kontuan izanda, familiak ekarritako jakiak eskaintzendizkiogu. Ezin dugu ezberdindu zein jatordu den, jan behar duela baizik.

### **1-2 urtekoen geletan:**

Maila hauetan ezberdina da. Bazkaria Sansomendi eskolako sukaldetik ekartzen digute eta tenperatura mantentzeko, jantokia antolatzeko etab. ordutegia finkoagoa da. Dena den, malgutasunez jokatzeko eta aurreratu edo atzeratzen dugu (10-15 minutu) gelako umeen beharren arabera.

Jantokiko denbora, berez, geletan hasten da 12.00etan eskuak garbitzen, mantalak janzen..., gero jantokira joaten gara eta bukatzeko ordua 13:00etan izatea finkatu dugu.

### **NON**

### **Sehaskakoen geletan:**

Gelan bertan. Umearen garapenaren arabera, magalean, tronan edo hamakan.

### **1-2 urtekoen geletan:**

Eskolan, berez, bi jantoki ditugu.

Ikasturte batzuetan, umearen eta talde hezitzailearen arabera, taldearen lasaitasuna bilatzeko asmoz, haurrak gelen arteko espazioan bertan bazkaltzea erabakitzen dugu.

### **HELBURUAK**

- Haurren behar fisikoak eta emozionalak asetzea.
- Jatorduetan ditugun ohiturak eta arauen multzoa barneratzea: gizartekoak, kulturalak...
- Zapora, testura eta kolore berriak sartzea.
- Haurrari jan, edan eta bere burua elikatzen irakastea.
- Haur bakoitzaren erritmoa errespetatzea.
- Bazkariaren balorazio orokorra egitea (jarrera, ez bakarrik kantitatea).

- Bazkaldu aurretik, bitartean eta ondoren higiene-ohiturak eskuratzea.
- Haurrak gero eta autonomoagoak eta arduratsuagoak izatea: koilara eta sardexka erabili, mantala hartu eta gero eskegi, adur-zapia ontzian utzi, eskuak eta aurpegia garbitu...
- Hezitzaileekin eta beste hurrekin harremanak ezartzea .
- Une atsegina, kalitatezkoa eta plazerean oinarritutakoa izatea.
- Haurra bere ekintzaren motore izatea: izaki aktiboa (motrizitate fina eta begi-eskuaren koordinazioa lantzea).
- Sasoiko elikagaiak, gertukoak eta ekologikoak bermatzea.

## **HEZITZAILEON ROLA**

- Hezitzaileen arteko koherentzia dugu, irizpide sendoetan oinarrituta.
- Bazkaltzeko ordua heldu dela ahoz adierazten diogu.
- Erritualak sortzen eta errepikatzen ditugu. Haurrari egingo dugunaren berri ematen diogu ziur sentitzeko.
- Haurrari parte hartzen eta entseguak egiten uzten ahalbidetzen diogu. Hitz eginez, janaria bere aurrean zerbitzatuz, eskuak eta besoak libre dituela ziurtatuz, jateko tresnak ondo erabiliz, janari gehiegi ez hartuz... Azken finean, ikasketa prozesua da.
- Gure jarrera egokia da. Ez ditugu mekanikoki elikatu behar, tentu handiz aritu behar dugu haurrari helarazten dizkiogun mezuekin, gure hitzekin...
- Haurra lagunduta sentiarazten dugu: “Egin al dezakezu zuk? Bestela lagunduko dizut...” eta horrelako esapideak erabiltzen ditugu.
- Kantitate egokia eskaintzen diogu eta umearen seinaleetara adi gaude. Haurrak erabakitzen du zenbat jan nahi duen. Umeak jan nahi ez duenean hezitzaileok probatzera animatzen dugu, baina inoiz ez saria-zigorra metodoa erabiliz ezta behartuz. Alderantziz ere gertatzen da. Haurrak gehiago nahi badu eskainiko diogu.
- Haurra modu garbian, egokian eta autonomoan jateko gai izan dadin eragiten dugu (prozesua da).

- Haurren erritmoak, beharrak eta nahiak errespetatzen ditugu. Bazkariaren erritmoa motelegia bada edo haurrak pazientzia galtzen badu “bi koilarakaden metodora” jo dezakegu: hezitzaileak haurra elikatzen du baina umeari koilara batekin saiatzeko aukera uzten dio.
- Kalitatezko zaintza egiteko, ingurunea segurua eta aberatsa sortzen dugu.
- Bazkal orduan dauden arauak ezagutarazi eta errespetarazten dizkiogu: ura ez da botatzen, ondo eserita egon, janaria ez da jolasteko, ezin du platera mahaitik bota, ezin du ondoko janaria ukitu...
- Jaki berriak eskaintzen dizkiogu: zapora, kolore eta textura desberdinekoak.
- Helduok eta haurren arteko konfiantzazko harremana sortzen dugu.
- Ez dugu epairik egiten.
- Haurren gaitasunengan konfiantza dugu. Egiten duenari balioa ematen diogu eta pixkanaka, gehiago eskatzen diogu.
- Gure adierazpena zaintzen dugu: tentu begirada, ahots tonua, hitz egin eta ixiltasun tartea, haurrari gertatzen zaiona azaltzen diogu, keinuleunak, heltzeko modu maitekorra, baimena eskatzen, entzuten eta denbora ematen diogu.
- Irteera orduan jantokiko hezitzaile batzuk gaude, behar izanez gero, informazio gehiago emateko familiari edota menuaren aldaketaren bat egin behar bada (elikagai berrien sarrera, puretik osora...).
- Familiari bazkaltzeko momentuan gure lan egiteko eraren irizpideak jakinarazten dizkiogu: ez dugula behartzen umea jatera, giro lasaia dela, hezkuntza arrazoiak, nola jokatzeko dugun hezitzaileok... Familiarekin batera jarduteko jarraibideak zehazten ditugu.

## **KOMUNITATEAREN ROLA**

### **FAMILIA**

- Ikasturte hasieran hezitzaileekin elkarrizketa pertsonala egiten du eta bere seme-alabaren elikadura ohiturei buruzko galdetegi bat betetzen du.
- Urtean zehar eskola eta familiaren zalantzak eta kezak argitzen dizkiogu elkarri. Arazoak egonez gero, zer egin eta nola bideratu partekatzen dugu.
- Sehaskakoen gela kasuan, familiak bere seme-alabaren bazkaria ekartzen du egunero termino batean.

## **PROZEDURA**

Hezitzaileok ikasturte hasieran guraso guztiakin adosten ditugu haur bakoitzaren jatorduaren ezaugarriak.

Lehenik eta behin ingurunean haurren ziurtasuna bermatzen dugu (haurra ziur eta lasai egon behar da jan ahal izateko). Umearen garapenaren arabera magalean, tronan edo mahai txikitan hartzen du bazkaria.

### **Sehaskakoen geletan:**

Biberoia, ahia edo janaria eskaintzeko momentua familiak emandako informazioaren arabera da, edota, haurrak eskatzen duenean.

- Dena prestatzen dugu (jana-koilara, adur-zapia, oihala, edalontzia eta pitxarra).
- Haurrari esaten diogu jatera doala.
- Haurraren gana hurbiltzen gara adur-zapiarekin, erakutsi eta hartuko dugula esan eta bazkaltzera doala (adur-zapia jateko tokian jartzen diogu).
- Bazkaria ematen diogu (tartean eta bukaeran ura eskaintzen diogu).
- Janariarekin jolasten hasiz gero, asko mugitu eta interesik erakusten ez badu hezitzaileak bukatutzat ematen du denbora hori eta beranduago eskaintzen dio.
- Bukatu eta gero eskuak eta aurpegia garbitzen dizkiogu (prozesuan zehar ere beharrezkoa suertatuz gero).

### **1-2 urtekoen geletan:**

- Heldutasun mailaren arabera, banaka, binaka edo hirunaka bazkaltzen dute. Jantoki handian 5-6naka egiten dute.
- Sukaldeko langileak janaria, mahai-tresnak, adur-zapia, garbitzeko papera, edalontzia, pitxarra... prestatzen ditu.
- Bikote hezitzaile batzuek txandak egiten ditugu jantokian aritzeko. Beste batzuek, berriz, gelako tutore batek jantokiko ardura kurtsoan zehar mantentzen du eta bestea gelako irteeraz arduratzen da. Honetaz gain, eskolako beharren arabera jantokiko errefortzuak ditugu. Beste tutoreak gelan gelditzen dira taldearekin 12:30eko irteera bukatu arte. Ondoren, jantokian laguntzen dute.

- Bazkal ordua hasi aurretik prestakuntzarekin hasten gara gelan bertan. Hauda, eskuak garbitu eta mantalak, autonomiaren arabera, jantzen laguntzen diogu geletako komunitetan. Bazkaltzeko errituala, bazkaltzeko seinalea.

- Ondoren, bazkaltzeko ordua dela adieraziz jantokira joaten gara, iskanbilarik sortu gabe. Atea itxi eta bakoitza bere lekura doa. Hezitzaileak adur-zapiak banatu eta jartzen laguntzen ditu. Pitxarrean dagoen ura edalontzietan jarri kantitate txiki bat eta bazkaria banatzen hasten gara. Horretarako, nori emango dion esaten dugu, eta zerbitzariak ekarritako edukiontzia haurren aurrean irekitzen dugu, plater/bolean jartzen du.

- Haur bakoitzean arreta jarriz eta beharrak asetuz momentua behatzen (ur gehiago behar izanez gero edalontzietan bota, haur batek laguntza eskatuz gero eman, haur bakoitzak daki zer neurritan gose den, eskaintako kantitatea jatea erabaki dezake, platera ez amaitu edota gehiago eskatu...).

- Lehenengo platera amaitzen duen haurari bigarrena eskaintzen dio prozedura berdina erabiliz: lehenengo platera/bola kendu, platera jarri, edukiontzia ireki eta zerbitzatu.

- Haurrak amaitzen duenean, adur-zapia garbitzeko ontzira eramaten du eta mantala askatu eta eskegitzen du. Ondoren aurpegia eta eskuak autonomiaren arabera garbitzen laguntzen dio.

## **BEHAKETA**

- Eguneroko behaketa zuzena egiten dugu: haurren garapena, autonomia, hezitzailearen parte-hartze baita espazioaren antolakuntza ere, momentu hau atsegina eta lasaia izan den ala ez.

- Antolamenduaren alde onak eta txarrak ikusten baditugu, hezitzaile taldera eramaten ditugu. Momentu hauek nola bizitzen diren eta erabiltako materialak aztertzen ditugu.

- Informazioa (zer eta nola bazkaldu duen, autonomia maila...) gurasoei ematen diegu koadernoan edo ohar baten bitartez. Informazio hori isilpekoa da eta haur bakoitzak duen kutxatilan uzten dugu familiaren esku.

## **EBALUAZIOA**

Haur bakoitzaren jarraipena egiten dugu (nola egoten den errutina honetan, jan/probatu duen ala ez, asetu den, arauak betetzen dituen, gustura egon den...). Tutoreen arteko behaketa eta hitz egitearen bitartez, haur bakoitzaren egoera, bizipenak zeintzuk diren zehazten ditugu, baloratzen ditugu.

Hezitzaileen lana (prestakuntza, jarrera, bikoteren arteko koherentzia, umearen eritmoaren errespetatua, familiarekiko informazioa...) eta espazioak, tresnak eta giroa ere ebaluatzen ditugu banan-banan, bikoteka edota taldeka.

Maiatza-ekaina aldera urtean zehar izandako garapena islatzen dugu umearen azken ebaluaketa txostenean. Uztailean, kurtsoaren memoria egiterakoan, balorazio honen arabera, aldaketak txertatzen ditugu edota zegoen moduan mantentzen dugu.

### 3.2.3. Higienea

Haurrak garbi egon behar du ondo sentitzeko. Ez bera bakarrik, bere ingurunea (eskola, espazioak eta materialak) ere garbia eta zainduta ikusi behar du. Higienearen uneak haurraren behar fisikoak asetzeko haratago doaz, harreman iraunkorrak sortzeko pribilegiatuak dira. Haur bakoitzarekin bakarkako harremana izatea eta, une horietan guztietan, haurra kide aktibotzat hartzea funtsezkoa da. Gure ahalegina horretan datza. Hau kontuan hartzen badugu, umea beti seguru eta lasai sentituko da eta bere ahalmen guztiak garatzeko eta pozik hazteko gai izango da.

### NOIZ

Eguneroko uneak dira, egunean zehar hainbat aldiz errepikatzen direnak. Gure ustez, higienek espazioa, materialak eta abar hartzen ditu barne, beraz, etengabe ari gara giro txukuna, garbia eta ondo aireztatua mantentzen. Horrez gain, kontuan izan behar dugu haurra zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta kontu handiagoa izaten dugula materialaren garbiketan, horretan bereziki arduratsuak izaten gara.

Badira higiena zaintzerakoan zehatzagoak diren beste momento batzuk:

- Pixoihalaren aldaketa: goizekoari, gutxienez behin aldatzen diogu, (kaka egiten duen bakoitzean ere); bazkaltzera geratzen denari, bazkal ostean ere, eta siestan gelditzen den haurrari, siesta egin eta gero hirugarren bat aldatzen diogu.

- Eskuak eta aurpegia garbitu: bazkal orduan atzetik eta aurretik, patioetik etortzerakoan eta, azken finean, zikin dituen aldi bakoitzean.

- Mukiak kendu: beharrezkoa den guztietan.

- Arropa aldaketa: umea zikintzen edo bustitzen denean (bai txiza egin delako, bai ura erori zaiolako, patioan zikindu delako edo bestelakoak).



## **NON**

### Pixoihalaren aldaketa:

#### **Sehaskakoen geletan:**

Pixoihala aldatzeko zenbait espazio daukagu. Normalean egokituta daukagun aldatokian izaten da. Espazio honetan koltxoneta txikia dago eta ume bakoitzak apal bat dauka non etxetik ekarritako esku oihala, zapi bustiak, ipurdirako krema eta pixoihalak gordetzen ditugun. Aldatzeko arropa kutxa/poltsa txiki batean espazio honetan ere gordetzen dugu. Ondoan bainuontzia dago beharrezkoa bada hortxe garbitzeko urarekin.

Gerta ahal da ere, gelako beste espazio batzuk erabiltzea: tatamia, lurra...

#### **Urte batekoen eta bi urtekoen geletan:**

Gelen artean dagoen komunean. Pixoihalak aldatzeko gure altuerara leku egokituta daukagu koltxoneta batekin. Umeak toki honetara igotzeko eskailerak dauzka.

Gelan bertan ere aldatzen ditugu pixoihalak, aldatokian, bai lurrean bai zutik.

Bainugelak, bi konketa handi daude eta hiru komun txiki (erabiltzen ez direnean estalita daude).

Apaletan zapitxo bustiak, pixoihalak eta ipurdirako kremak gordetzen ditugu. Armairuetan aldatzeko arropak daude kutxa-poltsetan sartuta.

### Eskuak eta aurpegiak garbitu:

#### **Sehaskakoen geletan:**

Eskuak eta aurpegiak garbitzeko bainuontziaren iturria dugu. Batzuek zapi txiki batekin lehortzen dute eta beste batzuek, berriz, paperarekin.

#### **Urte batekoen eta bi urtekoen geletan:**

Bazkaldu baino lehen eta bazkaldu ondoren, patiotik bueltatzerakoan garbitzen dizkiogu eskuak edo/eta musua. Ahal den neurrian berak bakarrik garbitzen ditu.

### Mukiak kendu:

Beharrezkoa denean eskolako edozein tokitan.

## HELBURUAK

- Higiene unetan haurraren behar fisikoak eta emozionalak identifikatzea eta asetzea.
- Hezitzailearen eta umearen arteko une intimoak partekatzea eta haien harremana indartzea eta estutzea.
- Une hau plazeraz bizitzea, haurrak bere buruarengan konfiantza eta segurtasuna eskuratzea.
- Zaintza une honen bitartez poliki-poliki bere kabuz ikasten joatea eta haurraren autonomia sustatzea.

## HEZITZAILEON ROLA

- Lehenik eta behin haurraren ziurtasun emozionala bermatzen dugu (haurra ziur eta lasai egongo da momentu intimoak baitira).
- Haurraren garapena, jarrera eta nortasuna ondo ezagutzea erantzun ahal izateko.
- Komunikazioa erraztea, sustatzea, haurraren beharrei modu egokian erantzuteko.
- Higieneari dagokion unea antolatzea, haurrak unea identifikatu eta plazeraz bizi ahal izateko.
- Higiene une honetan iraunkortasuna mantentzea, etenak saihestuz eta haurraren begirada mantenduz.
- Haurra partaide izateko, zer egingo dugun azaldu eta unea aurreratzen diogu.
- Higienea mekanikoki ez egitea. Kontuan izatea harreman sakona garatzen ari garela eta, horren ondorioz, umearen autonomia eta ongizatea sustatzen da.
- Gure adierazpena zaintzen dugu: begirada, jarrera, ahots tonua, hitz egin eta ixiltasun tartea, haurrari jakinaraztea, keinu leunak, heltzeko modu maitekorra, baimena eskatzea....
- Gure partaidetza murrizten dugu haurraren autonomia handiagoa den heinean. Dena den, gure presentzia, animoa eta laguntza ezinbestekoak dira.
- Egunero familiari higieneari buruzko informazioa ematen diogu.

- Bi urtekoen gelan esfinterren kontrolari buruzko artikulua errazten dizkiogu.

## **KOMUNITATEAREN ROLA**

### **FAMILIA**

- Familiak hezitzaileekin bileretan baita banakako elkarrizketetan ere, higie-nearekin dituen zalantzeta hitz egiten du. Haur bakoitzaren ohiturak, momento ebolutiboa, behar bereziak...
- Ikasturte hasieran umeak behar duen materiala ekartzen du: oihal bustiak, pixoihalak, botikarik gabeko ipurdiko krema, nahi izanez gero, aldatzeko arropa eta amantala.
- Bi urtekoen gelan askotan pixoihala kentzeko unea heltzen da eta hori dela eta esfinterrei buruzko informazioa garrantzi handiagoa izaten du familiarentzat. Garrantzitsua da prozesu honetan batera joatea eta komuneko urrats batzuk ezartzea.

### **PROZEDURA**

Gela bakoitzean, hezitzaile izaera eta esperientziatik abiatuta, era batean edo bestean egiten dugu. Hau da, ez dugu era berdinean egiten baina, oro har, horrela gauzatzen dugu:

Pixoihalaren aldaketa:

#### **Sehaskakoen geletan:**

Aurrez aldetik aldatzeko espazioa antolatzen dugu: pixoihala, bere zapi bustiak, krema eta guk derrigorrez erabiltzen ditugun eskularruak.

Umearengana hurbildu eta makurtuz, begiratzuz eta besoak irekita esaten diogu zertarako hartuko dugun, horrela umeak ekintza aurreikusten du. Goxo-goxo hartuz etzan jartzen dugu eta berari begirada kendu gabe poliki-poliki pixoihala kentzen hasten gara. Dena hitzez azaltzen diogu, gure tonua, jarrera, eskuen temperatura eta mugimenduak zaintzen ditugu. Pixoihal garbia jarriko diogula esten diogu eta hankak igotzeko eskatzen diogu.

Aldaketa amaitzeko, arropa erakutsi eta izendatzen dugu, bere laguntza eskatzen diogu janzteko, jaisteko abisatzen diogu eta eskerrak ematen dizkiogu laguntzarengatik.

Nahiz eta ekintza guk gidatu, umearen jarduera espontaneoak, emozioak elkar trukatzeko eta gauzak erakusteko aprobetxatzen dugu. Une hau jarraian egiten dugu. Umearen garapenaren arabera zutik ere egin dezakegu.

### **Urte betekoen geletan:**

Haur hauekin sehaskan dugun prozedura berdina jarraitzen dugu.

Oinez ibiltzen dakienari berarengana hurbilduz pixoihala aldatu behar diogula esaten diogu. Eskailerak igotzeko, arropa erantzeko eta garbiketa prozesuan parte hartzeko aukera ematen diogu, dena hitzez azalduz eta begietara begiratuz. Umearen eta beharren arabera pixoihala zutik edo etzanda aldatzen diogu. Aldatokirako eskailerak igotzeko aukera ematen diogu.

### **Bi urtekoen geletan:**

Hezitzaileok haur bakoitzaren garapena nolakoa den, zein momentutan dagoen, komunean eseri nahi duen, eta abar dakigu. Haur bakoitzari behar duen laguntza eskaintzen diogu (umeari esertzeko aukera emanez, garbitzeko papera eskainiz, eta kateari tira egiteko esanez). Haur batzuk komunean txiza eta kaka egiteko gai izango dira eta beste batzuk ordea ez.

Gehienetan zutik aldatzen diogu pixoihala, bere laguntza eskatzen diogu pixoihala aldatzen diogun bitartean eta pixoihala zakarrontzira botatzeko.

### **Bainua:**

Haurrak behar duenean bainatzen dugu. Horretarako, bainuontzia ur epelarekin eta toalla batekin ez irristatzeko prestatzen dugu. Umearen gorputzerako xaboa daukagu apalean erabili behar dugunerako. Bainua amaitutakoan, toalla batekin lehortzen dugu.

### **Eskuak eta aurpegia:**

#### **Sehaskakoen geletan:**

Zikin dagoenean eskuak eta aurpegia goxo-goxo garbitzen dizkiogu oihal busti batekin edo paper bustiarekin.

#### **1-2 urtekoen geletan:**

Bazkaldu baino lehen eta bazkal ostean garbitzen ditugu eskuak eta aurpegia ura eta xaboiarekin. Haurra bere Kabul eskuak garbitzea lantzen dugu. Horretarako palankana txiki bat erabiltzen dugu. Eskuak lehertzeko bakoitzak

bere toalla du eskegita eta berak hartzen du. Gela batzuetan papera erabiltzen dute.

Gerta liteke, goizean zehar aurpegia eta eskuak zikintzea eta horrelakoetan ere garbitzen ditugu.

#### Mukiak eta adurra kentzea:

Mukiak garbitzeko komuneko papera erabiltzen dugu. Haurrari, mukiak dituela eta kendu behar dizkiogula adierazten diogu, baimena eskatuz. Haurraren begiradaren parean kokatzen gara, bere begirada bilatuz. Papera erakusten diogu eta presarik gabe eta kontu handiz egiten dugu. Autonomia eskuratzen doan heinean, berari paperarekin mukiak kentzeko eta zakarrontzira botatzeko aukera ematen diogu.

Adur jarria duenari musua garbitzen diogu eta, arropa lehor izateko, adur-zapia jartzen diogu.

### **BEHAKETA**

- Haur bakoitzaren behaketa etengabea eta banakakoa egiten dugu.
- Haurrak higie egoeretan duen jarrera (parte-hartzea, interesa edo gabezia, emozioak...) behatzen dugu.
- Haurraren garapenean higienerari dagokion bilakaera (aurrerapena, egonkortasuna, atzerakada, kontrola, jarrera aldaketak...) behatzen dugu.
- Haurra eta helduaren arteko harremanak higienerekin lotutako momentuetan behatzen ditugu.

### **EBALUAZIOA**

Behaketaren bitartez jasotako informazioan oinarrituz burutzen dugu.

Haurrari dagokionez, partaidetza, jarrera, emozioak, komunikazioa... ebaluatzen ditugu.

Hezitzaileari dagokionez, jarrera, komunikazioa, antolaketa, emozioak... ebaluatzen ditugu.

Baliabideei dagokienez, antolaketa, praktikotasuna... ebaluatzen ditugu.

### 3.2.4. Atsedena- loa

Lo egitea ezinbestekoa da haurren osasuna eta garapenerako. Loak alerta sentitzea, memoria ona edukitzea eta hobeto jokatzeko sustatzen du. Lo nahikoa lortzen duen haurrak hobeto funtzionatzen du eta portaera arazoak eta suminkortasun gutxiago ditu. Beraz, helduok haurrari lo egiteko ohitura onak garatzen laguntzea garrantzitsua da. Horretarako, umea entzutea, azalpenak ematea eta maitasuna erakustea hoberena da.

Haur bakoitza bakarra da. Handitzen doan neurrian behar dituen lo egiteko ordu kopurua eta deskantsatzeko era aldatu egiten da.

Lotura emozional estuak mantentzea garrantzitsua da, ziur eta lasai sentitzeko. Lo egiteko momentua ere, haur bakoitzarekin komunikatzeko une berezia da. Hitz maitekorrak, laztanak, abestiak, istorioak garrantzitsuak dira. Horiek umeari lotara joateko momentua atsegina dela sentiarazten laguntzen diote.

Errespetuan eta konfiantzan oinarritutako zaintza defendatzen dugu eta kontuan hartzen dugu haur eskolako jarduerak planifikatzeko garaian.

#### **NOIZ**

Ume bakoitzaren beharrak asetzen ditugu. Sehaskakoen geletan umeak behar duen momentu bakoitzean du lo egiteko aukera du, bera da ordutegiak ezartzen dituenak.

Urte bat eta bi urteko umeak, askotan goizean zehar lo-kuluxka egiteko eta deskantsatzeko beharra du, beraz berari ere atsedena ahalbidetzen diogu. Jantoki zerbitzua erabiltzen badu, ondoren siesta egiteko aukera du.

#### **NON**

##### **Sehaskakoen geletan:**

Lo-kuluxka gela barruan sehaskan, hamakan edo bere kotxean egiten du lo.

##### **Urte betekoen eta bi urtekoen geletan:**

- Gelen arteko espazioan, sehaskan, hamakan edo kotxean. Hemen ere goizean zehar lo kuluxkatxoa egin dezake.
- Balio anitzeko gelan, hamakan, sehaskan edo kotxean.

Dena den, umeak lo beharra ez badu baina nekatuta badago, urte beteko eta bi urteko gelek "lasaitasun txokoa" dute (koltxoneta batekin, kuxinekin...) atsedena har dezan.

Siesta geletan haur bakoitzak bere lo egiteko leku finkoa dauka argazkia edota izena jarrita. Ez dago estimulaziorik (zintzilikarioak, jostailuak bistan...) eta esparru horiek ilunagoak dira.

## **HELBURUAK**

- Haurren beharrak asetzea.
- Haurren erritmo biologikoa errespetatzea.
- Haurrak nekatuta dagoela adieraztea eta guk hori nabaritzea.
- Haurra esnatzen denengan lasai egotea eta ez izutzea.
- Umeak behar badu, atsedeen momentuetan lagunduta sentiaraztea.
- Hezitzailearen eta umearen arteko une kutuna partekatzea eta haien harremana indartzea eta estutzea.
- Une hau plazeraz bizitzea, haurrak bere buruarengan konfiantza eta segurtasuna eskuratzea.
- Zaintza une honen bitartez pixkanaka autonomia sustatzea.

## **HEZITZAILEON ROLA**

- Lasaitasuna eta konfiantza sustatzen dugu.
- Lo egiteko ordua dela goxotasunez adierazten diogu.
- Haurra lotan dagoenean zaintzen dugu.
- Taldea ahaztu gabe, haurren erritmo biologikoa errespetatzen dugu espazio egokia (argia, zarata, tenperatura...) eta segurtasunezko baldintzak (bere konfiantzazko hezitzailearen presentzia, bere ohitura eta errituala errespetatua izatea...) eskaintzen ditugu.
- Lotara joan aurretiko erritualak (txupetea eta atxikimendu objektua eskaintzen ditugu, sehaska mugitzen dugu behar dutenei...) antolatzen ditugu.
- Nekearen lehen zantzueta adi gaude.

- Haurrak bere kasa lasaitu eta lokartzeko gaitasunarengan konfiantza dugu.
- Esnatzen denean ondoan gaude haurraren lasaitasunerako.
- Gure esperientzian oinarrituta, familiaren zalantzak erantzuten ditugu, artikulu interesgarriak erraztuz eta egunero loa eta atsedenari buruzko informazioa emanez.

## **KOMUNITATEAREN ROLA**

### **FAMILIA**

- Hasierako elkarrizketan haurraren lo egiteko ohiturari buruzko informazioa luzatzen digute (non, postura, denbora, atxikimendu objektuak...) eta prozedura adosten dugu.
- Familiak ere objektu "laguntzaileak": pelutxeren bat, dou-dou, txupetea... ekartzen ditu.
- Familiarekin eguneroko informazioa trukutzen dugu umearen jarraipena egiteko, bai ahoz bai idatziz eta arazoak sortzen badira guztion artean konponbiderik bilatzeko.

### **PROZEDURA**

Ikasturte hasieran, taldeak nolakoak diren, umeak zer behar duen eta hezitzaileen ordutegiak nolakoak diren kontuan hartuz, gela bakoitzeko hezitzaileok, besteekin adostuta, siestarako esparruak antolatzen ditugu.

#### **Sehaskakoen geletan:**

Umearen loa errespetatzen dugu eta lo egin behar duen bakoitzean lokartzen laguntzen dugu: besoetan hartuz, sehaska mugituz edo bere kotxean sartuz, erosoago egoteko arropa eranzten diogu...

Horretarako, bi sehaskako gelen arteko esparrua lo egiteko leku apropos bihurtu dugu. Ume bakoitzak sehaska bat dauka. Bere argazkia edota bere izena agertzen da norberaren sehaskan eta, behar izanez gero, lo egiteko lotura handiko panpintxoa edo zapia hantxe uzten dugu umeak eskura izan dezan.

Ilunpean jartzeko aukera daukagu, lo egiteko giro egokia bermatzeko. Bazkaltzera geratzen direnek siesta egiteko aukera dute, baina ez dago epe finkorik. Normalean, haurra bazkaldu eta gero lokartzen da baina horrela ez den kasuetan kontuan izaten dugu bere beharra errespetatuz.



Behin lokaturik, ez dugu esnatzen. Bera bakarrik esnatu arte itxoiten dugu, norberak bere altxatzeko momentua izan dezan bermatuz. Batzuetan, familiak berak esnatzen du umea bere bila etortzen denean.

### **1-2 urtekoen geletan:**

Ume batek lo egin behar duenean bai bere kotxea, bai horretarako prestaturiko sehaska erabiltzen dugu. Horretarako, leku aproposena gelen arteko espazioa da, hor lasaitasuna lortzeko aukera baitugu.

Bazkaltzera geratzen diren umeentzat lo-kuluxka egiteko esparru bereziak daude eskolan.

Balio anitzeko gela siesta-gela bihurtzen da egunero. Ume bakoitzak bere toki finkoa dauka lasaitasuna ematen baitio.

Hantxe dauden hamaketan (ohe txikietan), bere kotxean edota sehaskan egiten dute lo. Bakoitzak zer behar duen kontuan hartuz, familiarekin adostuta, zein den leku aproposena erabakitzen dugu .

Gelen arteko espazioak ere, siestarako presta ditzakegu. Hortxe, hamakak, kotxeak edo sehaskak erabiltzen ditugu.

Bazkaldu eta higiene unea egin ondoren arropa erantzten du gure laguntzarekin, beharrezkoa bada, siesta erosoago egiteko.

Atxikimendu objektua (panpinak, zapiak, txupeteak..) behar duenari ematen diogu eta siestara joaten gara. Umeekin egoten gara lokartzen laguntzeko eta esnatze momentuan. Beti hezitzailearen bat egoten da berarekin. Ahal den neurrian pertsona bera egunero.

Lo egin eta ondorengo errutinekin jarraitzen dugu (zapatak jartzearekin, txiza egitearekin, lo egiteko objektuak biltzearekin..) giro lasai batean.

Hirugarren espazio bat egokitzen dugunean aurreko espazioa bezala antolatzen dugu. Espazio honen antolatzearen helburua lasaitasuna lortzea da eta hori errazago lortzen dugu ume kopurua baxuagoa bada.

Ezin dugu ahaztu haur bakoitzaren premiak ezberdinak direla, batzuk bat-batean lokartzen dira eta beste batzuek denbora behar dute. Loalditxoaren iraupena ere ezberdina da eta horri guztiari erantzuten diogu.

Siesta eta gero, familiaren zain egoten gara geletan bananduta.

Umeren batek lo gutxi egin badu, familiarekin adosten dugu ea haiiek heldu arte umea lo jarraitzen duen ala ez.

## **BEHAKETA**

Alde batetik, antolakuntza aztertzen dugu:

- Ordutegia, tokia eta honen iluntasuna aproposa den.
- Siesta geletako antolaketa, zeintzuk dauden leku bakoitzean, non dauden eta noren ondoan, toki aldaketak egin behar diren haurren lasaitasunerako.
- Irteeraren orduan haurra esnatzea aproposa den ala ez.
- Eskolako baliabide pertsonalak nahikoak diren eta ondo antolatuta dauden.

Beste aldetik, ume bakoitzaren norbanakotasuna behatzen dugu:

- Zein den lo egiteko gogokoen duen postura (ahuspez, goruntz begira...).
- Zenbat aldiz egiten duen lo eskolan.
- Zenbat denbora ematen duen lo hartzeko eta esnatzeko.
- Nola adierazten duen nekatuta dagoela.
- Bere kotxea behar duen edo sehaskara edo ohera pasatzeko gai den.
- Gelen arteko espazioan lo egiten duenak siesta orokorrera joateko gai den ala ez.
- Zer nolako ohiturak dituen lotara joateko orduan.
- Zein den lotarako erabiltzen duen objektua.
- Bakarrik egiten duen lo edo norbaitekin egon behar duen lo gelditu arte.
- Nola/zein humorez esnatzen den (negarrez, pozik, lasai...).

## **EBALUAZIOA**

Egindako behaketetan oinarritzen gara ebaluazioa egiteko. Bakoitzak bere gelako ebaluazioa egiten du (umeena eta hezitzaileena). Eskolako beste baliabideak erabiliz gero (lekua eta hezitzaileak) talde mailan ebaluatzen dugu loaldiaren momentua, besteengan eragin txarrik ez izateko.

Etengabea da eta hainbat alderdi ebaluatzen ditugu:

- Ume bakoitzaren bilakaera (loaren aurrean duen jarrera, aldaketak, aurrerapenak, agertzen dituen emozioak, komunikazioa...).
- Familiarekiko koordinazioa.
- Hezitzaile bakoitzaren eta taldearen jarrera (komunikazioa, antolaketa, emozioen kontrola...).
- Eskolako antolamendua (baliabideak, antolaketa, praktikotasuna...).

### 3.2.5 Bestelako ekintzak

Azken urteotan Udal Haur Eskolen errealitatea erabat aldatu da, eskolara etortzen diren haurrak gero eta gazteagoak dira eta lehen egiten genituen gauza askori, egun, ez diegu zentzu handirik ikusten. Horregatik, hezitzaile taldeak bestelako ekintzei buruzko hausnarketa sakon baten beharra ikusi genuen, uste baikenuen orekari eutsi behar geniola ohikoa ez den ekintza bat egitearen eta haurren ongizatearen artean. Hau da, gure lana haurren ezaugarrietara egokitu behar dugu zentzu honetan ere.

Eskolan jaiak antolatzen ditugunean, gure kultura osatzen duten tradizioen alde bat helarazi nahi diogu haurrari. Hau da, Olentzero eta Mari Domingiren jaiak, Prudentzio Deuna edo inauteriak ospatzen ditugunean, nolabait, kalean bizi eta ikusiko duena aurkezten dugu. Horrez gain, familiaren lankidetzaren bidez, haurrek bi ingurune horiek elkarrekin konektatzea lortzen dugu: familia eta eskola.

Gure eskolan bestelako ekintzen artean, jaien ospakizunak urtero dira talde lanean lantzeko gaia. Ikasturtero ekintza berezi bakoitza landu edo ez, nola, non, noiz... aztertzen eta baloratzen dugu. Umearen ezaugarriak, adina, gustuak, beharrak (loa, jana...), beldurrak, eta abar zaintzen ditugu eta desegokia ikustekotan, umeak ez du parte hartzen. Sehaskakoen geletan ez dugu ezer antolatzen, baina egokia ikustekotan, haurra hurbiltzen dugu ekintza ikustera.

### **HONAKO HAUEK DIRA ESKOLAN AURRERA ERAMATEN DITUGUN EKINTZAK ETA HAUEN DESKRIBAPENA: NON, NOIZ ETA PROZEDURA.**

Egun horietan, ekintza bereziak egin arren, **eguneroko errutinak mantentzen dira** (sarrera, lenguaiaren unea, komunera joateko unea, jolas librea, bazkaria, higie-ne-jarduerak, siesta, irteera...). Horrek haurren segurtasun emozionala errazten du. Dena den, bakoitzak bere nahiaren arabera parte hartzea funtsezkotzat jotzen dugu.

## **MARI DOMINGI ETA OLENTZEROREN JAIA**

Abendu osoan zehar lantzen dugu. Hasteko, dekorazioa bai espazio komunetan (txoko hiztunetan, aretoan...) bai geletan prestatzen dugu. Mari Domingi, hezkidetzaren ildoak jarraituz, kontuan hartzen dugu gure festan izateko eta, horregatik, Olentzerok eta Mari Domingik gurekin ospatzen dute eguna.

Eskolako aretoan Olentzero eta Mari Domingiren tamaina naturaleko argazkia eta familiek ekarritako argazki pertsonalekin apaindutako zuhaitza jartzen dugu.

Festa egin aurretik, familiari panderoa eta Olentzero eta Mari Domingi pertsonaiak izateko laguntza eskatzen diogu. Hurrekin aretoan Gabonetako kantak abesten ditugu panderoarekin. Ez dugu inor behartzen kantatzera, ezta pandereta etxetik ekartzera, ezta jotzera ere. Jantzkeratik, arropa eroso ekartzea gomendatzen diegu, umea baserritar jantzita ekarri ala ez familia bakoitzaren esku utziz.

Olentzero eta Mari Domingiren jaiak bi une ditu. Bat eskolako artean egiten duguna eta bestea familiarekin konpartitzen duguna.

- Lehenengoa: aretoan ume guztiekin biltzen gara, beti ere haien beharrak kontuan izanda.

Hezitzaile batek Olentzero eta Mari Domingiri agurra egiten die eta Gabonetako abestiak kantatzen dizkiegu. Gero ekarritako oparia irekitzen dugu eta beraiekin taldeko argazkia egiten dugu. Haurren batek parte hartu nahi ez badu, gelan gelditzen da hezitzaile batekin.

- Bigarrena: familiarekin hamaiketako egiten dugu, batzuetan gelaka eta beste batzuetan mailaka, hezitzaileen artean erabakitzen da. Familia bakoitzak aukeratzeko jaki ezberdinetako zerrenda egiten da eta jai egunean, elkarrekin partekatzen ditugu. Hamaiketako hau oso baliogarria ikusten dugu, bertan familiek hobeto elkar ezagutzen dutelako eta harreman berriak eraikitzen laguntzen duelako.

Egun horretan ez dago jantokirik eta haurrak etxera doaz jai bukatu ondoren.

## **INAUTERIAK**

Festa aurretik, txoko hiztunak eta gelak gai honen inguruan apaintzen ditugu.

Bai urte bateko bai bi urtekoen geletan inauterietako txokoa antolatzen dugu. Bertan jantziak, kapelak eta osagarri desberdinak haurraren eskura jartzen ditugu, beraiek zer jantzi nahi duten erabakitzeko. Honetaz gain hilabetean

zehar aurpegiak margotzen dizkiegu beraiek aukeratutako pertsonai edo animaliekin.

Gune honetan umeak nahi duenean jolas daiteke. Inauterietako abestiak aurkeztu eta abesten ditugu.

Aretoa, tamaina naturaleko lau argazkiekin apaintzen dugu: indioa, sorgina, pirata eta pailasoa. Jai egunean, ostiralean, aretoan biltzen gara ume guztiak eta gelako hezitzaile batek aurkezten du pertsonaia bat. Bere abestia abesten dugu eta beste hezitzaile batek hurrengo pertsonaiarekin gauza bera egiten du. Horrela mozorro guztiakin. Nahi izatekotan eta aurretik antolatzeke aukera badugu, pertsonaien aurkezpenaren orde, antzerki txiki bat egin dezakegu.

Azkenik, aretoan dantza saioa dugu.

### **PRUDENTZIO DEUNA**

Jai hau egutegiaren arabera ospatzen dugu. Ospatzen dugunean guztion artean danborrada egiten dugu, eguraldiaren arabera patioan edo aretoan egiten da. Txoko hiztunak ere gai honen inguruan antolatzen ditugu. Familiari etxetik danbor bat ekartzeko eskatzen diogu eta, nahi izanez gero, etxetik txuri urdinez eta jaietako zapiarekin jantzita etortzeko eskatzen diogu. Honetaz gain, astean zehar danborradarako entseguak egiten ditugu gelan.

### **URTEBETETZEAK**

Gela bakoitzak erabakitzen du ospatzea ala ez eta nola ospatu (kandelei putz egitea, umeari argazkiak ateratzea, gurasoak gonbidatzea...) baina egun horretan ume hori protagonista da.

Normalean familiarekin hitz egiten dugu eta intolerantziak, alergiak etab, kontuan hartuta, bizkotxoak ekar dezake hamaiketakoan jateko. Ekartzen ez badute, urtebetetzea ospatuko dugu fruta jaten. Dena den, ospakizun bera egin daiteke benetakoa ez den tarta batekin.

### **EKAINEKO ASTE BEREZIA**

Aste hau ikasturtea agurtzeko eta uda ospatzeko antolatzen dugu. Eguraldi ona badugu, patioan egiteko ekintzak izaten dira: izozki-eguna, ur-jolasak, esperimintatzeko txokoak,...

#### **- Izozi-eguna**

Aldez aurretik familiari galdetzen diogu ea umeari eman ahal diogun eta ematekotan zein zapore duen gustuko. Izozi saltzailea furgonetarekin atzeko

patiora sartzen da. Umeak, taldeka ateratzen dira eta hezitzaileok saltzaileari guztientzako izozkiak eskatzen dizkiogu. Gero, kanpoan edo geletan jaten dugu. Jai giroa lortzeko musika jartzen dugu.

#### **- Ur-jolasak.**

Ekintza hau eguraldiarekin lotuta dago eta proposatutakoa eguraldiaren arabera aurrera eramaten dugu ala ez.

Egun batzuk lehenago familiari esaten diogu zer asmoa dugun eta zer ekarri behar duten egun horretarako: aldatzeko arropa, toalla, bainujantzia... Gela bakoitzak erabakitzen du non egin (patio handian, txikian edo sarreran dagoen belarrean) eta zer erabili: igerileku txiki bat, kuboak, palak, langargailuak, ontzi txikiak, ureztagailuak, zentzumenezko mahaiak...

#### **- Esperimentatzeko txokoak.**

Eguraldiaren arabera, patioan txoko desberdinak antolatzen ditugu material ezberdinekin (ipuinak, harea, margoketa txokoa, uretako txokoa...).

#### **- Udako jaiak.**

Asteko azken egunean festa handia antolatzen dugu familiek ere parte hartzeko. Antzerki txikia, ipuin-kontalaria, abeslaria, magoa, DJ, edo antzekoa ekartzen dugu guztiok ikusteko. Tortila batzuk erosten ditugu eta familiekin hamaiketakoa egiten dugu gelan bertan antzezlanak bukatzen denean. Oso momentu interesgarria eta atsegina sortzen da hezitzaileen eta familien artean. Izan ere, uztailean etortzen ez direnak eta 2 urtekoak agurtzen ditugu.

Egun honetan ez dago jantokirik eta haurrak etxera doaz jaiak bukatu ondoren.

### **GURE INSTALAZIOAK**

Instalazioak Artean eta psikomotrizitatean oinarritutako proposamenak dira. Umeari esplorazioa eta emozioak lantzea zaindutako gune batean eskaintzen diogu.

Orain dela urte batzuk Arte eta Lanbide Eskolaren eskutik Udako Haur Eskoletan instalazioak egiten hasi ginen. Hasiera batean, eurek ekarritako proposamenak, materialak eta baliabideak ziren. Gero, haiek egindakoarekin eta gure esperientziarekin, gure adineko haurrentzako egokiagoak urtero antolatzen hasi ginen.

Eskola-gunean ezaugarri artistikoei lehentasuna ematen jarraitzeko, instalazioak gure kabuz urtero antolatzen ditugu.

Psikomotrizitate gela husten dugu instalazio handi bat sortzeko. Bitartean hango materiala aretoan jartzen dugu motore eremua mantentzeko.

Prozesu osoa (materialak, espazioak, denbora, ebaluazioa...) talde bileretan erabakitzen dugu eta, materiala lortu eta gero, muntaia egiten dugu. Instalazio bat sortzea prozesu zaila eta luzea denez, bururatu eta gero umeekin funtzionatzen badu, beste kurtso batzuetan errepikatzen dugu.

Normalean bi edo hiru asteetan zehar ipinita izaten dugu eta txandaka joaten gara. Instalazioan jolasteko eta esperimentatzeko gela bakoitzak astero egun bat du.

## **ONDOREN BESTELAKO EKINTZA HAUEN GUZTIEN HELBURUAK, KOMUNITATEAREN ROLA, HEZITZAILEON ROLA, BEHAKETA ETA EBALUAZIOA ZEHAZTEN DITUGU.**

### **HELBURUAK**

- Haurraren ongizate fisiko eta emozionala bermatzea.
- Haur bakoitzaren beharrak asetzea eta bere erritmoa errespetatzea.
- Haurraren interesa sortzea.
- Familiaren lankidetzatza sustatzea eta familia-eskola arteko harreman estuagoa ezartzea .
- Gizartean ikusiko duten euskal kulturaren hainbat alderdi haurrei hurbiltzea (Mari Domingi eta Olentzeroren pertsonaiak, Inauterien giroa, Prudentzio Deunaren danborrada eta urtebetetze ospakizunak).
- Haurrak askatasunez deskubritzea, ukitzea, manipulatzeta eta bere burua adieraztea.
- Familia, umea eta hezitzaileok disfrutatzea.

### **HEZITZAILEON ROLA**

- Parte hartzeko bideak eta momentuak sortzen ditugu.
- Hezitzaileon taldean festa antolatu eta adosten dugu (eskolako apainketa, musika, materiala...).
- Familia, hezitzailea eta gelako taldeen arteko elkarrekintza bultzatzen dugu.

- Umeari egun horretan zer egingo dugun aurreikustarazten diogu.
- Umearen jarrera errespetatzen dugu erreakzioak desberdinak izan daitezkelako
- Umearen interesei eta beharrei erantzuten diegu.
- Giro lasaia sortzen dugu.
- Ez dugu ekintza zuzentzen, azaltzen ezta iradokizunerik ematen ere.
- Erreferentziako figura gara haurra seguru sentitzeko eta esploratzeko aukera izan dezan.
- Jolastera eta manipulatzera gonbidapena egiten dugu.

### **KOMUNITATEAREN ROLA**

Gelako bileretan familiari bestelako ekintzeen informazioa ematen diogu eta etortzera gonbidatzen ditugu. Horretaz gain, familiaren laguntza eskatzen dugu, hainbat modutan:

- Urtebetetzeetan etxean egindako zerbait konpartitzeko.
- Olentzero eta Mari Domingiren jairako bi gurasoei pertsoniaz janzteko eta pandereta bana eta hamaiketakoia ekartzeko.
- Prudentzio deuna ospatzeko danbor bana ekartzeko.
- Ur jolasetan parte hartzeko behar duen motxila prestatzeko.

### **BEHAKETA**

- Nola erantzuten duen eta haurarentzat plazer momentua den.
- Espazio honetan seguru sentitzen den, lasai eta pozik dagoen.
- Instalaziotik mugitzeko interesa duen eta nola mugitzen den.
- Nolakoa den haurraren jokabidea.
- Hezitzailearen eta familiaren parte-hartzea eta jarrera ere behatzen ditugu.



## EBALUAZIOA

Behaketaren bitartez jasotako informazioan oinarrituz burutzen dugu.

Haurrari dagokionez partaidetza, jarrera, agertzen diren emozioak, komunikazioa... ebaluatzen ditugu.

Hezitzaileari dagokionez, jarrera, komunikazioa, antolaketa, emozioak... ebaluatzen ditugu.

Espazioak, materialak eta giroa aproposak diren ebaluatzen ditugu bai banan-banan bai bikoteka eta taldeka ere.

Ekintza berezi bakoitzaren ondoren talde bilera batean elkartzen gara eta gure balorazioa ematen dugu. Zerbait aldatu behar izanez gero proposamenak planteatu eta idatzita uzten ditugu hurrengo urtean ekintza antolatu aurretik aurreikusteko eta kontuan hartzeko.

### 3.3. Jolaserako aukerak

Jolasa ZER den ondo ulertu ahal izateko Bugart-en definizioa ezinhobea dela uste dugu; "Estresik gabeko testuinguru erlaxatu batean gizakiek bere borondatez hasi eta gauzatzen duten jokabide errepikatua, osatu gabea eta funtzionala da. Berarekin dakartza plazera, dibertsioa eta emozioa". Esaldi honetan jolasaren aspekturik garrantzitsuenak laburbiltzen dira, hots, ongizatea bai fisikoa bai emozionalaren ezinbestekotasuna, borondatez sortzearen derrigortasuna (jolasak librea izan behar du), errepikatua izatearen premia, helburu jakinik ez izatea, eta azkenik, plazerra, dibertsioa eta emozioa sortzea.

Jolasaren zergatia:

- Gorputza eta zentzumenak garatzen ditu: umeak bere gorputzarekin, objetuekin eta besteekin egiten dituen jolasen bitartez, indarra, muskuluen kontrola, oreka, pertzeptzioa eta bere gorputzaren erabileran ziurtasuna lortzen du.

- Adimenaren garapena suspertzen du: umeak jolasaren bitartez, ikasi egiten du esperientzia ugari lortzen dituelako, gauza zuzenak eta akatsak egiteko aukera delako eta bere ezagutza martxan jartzeko. Lengoia, oroimena eta arreta ere garatzen ditu.

- Komunikazioa eta gizarteratze prozesuak indartzen ditu: umea jolasaren bitartez, gainerakoekin kontaktuan jartzen da. Honek bere inguruko pertsonak ezagutzen eta harremanetarako portaera arauak ikasten eta praktikatzen laguntzen dio.

- Garapen emozionala garatzen du: Jolasa poza sortarazten duen ekintza da. Eguneroko bizitzan topatzen dituen oztopoak berriro lantzeko aukera ematen dio.

- Haurraren barne eta kanpoko mundua elkarrekiko kontaktuan jartzen du. Alegia, bere ezagutzaren eraikitzailea dela kontuan izaten dugu.

Honetaz aparte, jolaserako erabiltzen ditugun espazioak seguru eta erosoak dira umea aske mugitzeko.

## **NOIZ**

Jolasa **berez sortzen** da. Ez dauka norbaitek "Goazen jolasera!" esan behar. Aldi berean, jolasa ez da asetzen, behin eta berriro gertatzen da.

Umeak, bere beharra, gaia, kideak... erabakitzeko **denbora** behar du.

## **NON**

Haurrak jolasa eskolako edozein espaziotan burutzen du. Prestatutako inguruneak haurra jolastera gonbidatzen du:

### **- Barrukoak:**

Gelak, aretoa, korridoreak, erabilera anitzeko gela, psikomotrizitate gela, jantokia, komunak eta gelen arteko espazioak.

### **- Kanpokoak:**

Bi patio ditugu. Aurreko patioan, kolunpioak, korrika egiteko espazioa, hareontzia eta lasai egoteko guneak ditugu. Atzeko patioan korrika egiteko, baloiekin jolasteko, motorrekin ibiltzeko, esperimenezko mahaiekin jolasteko... erabiltzen dugu.

## **HELBURUAK**

- Haurrak esperimendatzea eta mundua ezagutzea.
- Beste umekin erlazionatzea.
- Umearen autonomia era seguruan garatzea.
- Jolas librea egitea.

## **HEZITZAILEON ROLA**

- Haurrari jolas autonomo librean garatzeko behar dituen baldintzak, aukerak eskaintzen dizkiogu. Jolas-proposamen aberatsak antolatzen ditugu.
- Jolas librea babesten dugu.
- Bere inizatiba, ekimenak eta erritmoak errespetatu eta ulertzen ditugu. Konfiantza daukagu bere gaitasunetan, horregatik itxaroten dugu eta ez dugu estimulatzen, mugatzen ezta erreprimitzen, jolasten uzten dugu, besterik ez.
- Materialak txukun mantentzen ditugu (berrantolatzen ditugu) jolasari berriro hasiera emateko. Haurra hasten den heinean interesak alda daitezke eta bere beharretara materiala egokitzen dugu.
- Liskarren aurrean konponbidea erakusten diogu eta presentzia emanaz umeak konpon dezan konfiantza eskaintzen diogu eta gure esku-hartze bakarra mina saihestea da.
- Jolas uneetan haurraren bidelagunak gara. Konfiantza giroa sortzen dugu.
- Espazioak eta materialak baino gehiago, umeari denbora ematen diogu bere burua proba dezan eta bere gaitasunak azal ditzan, huts egin dezan, eror dadin, proba dezan
- Barruko espazioetan (geletan, aretoan, balio anitzeko geletan...) proposamenak egiten ditugu. Proposamen hauek haurra parte hartzera gonbidatzen duen txokoetan kokatutako iradokizunak dira, prestatu diren gauzetan interesa izan dezan, esploratzeko, erabiltzeko eta, beraz, aurkikuntza bidez ikasteko.

## **KOMUNITATEAREN ROLA**

### **FAMILIA**

- Familiak jolas librearen garrantzia jasotzen du eta altxor saskia bezalako ekintzak etxean aurrera eraman dezake.
- Zenbait material behar dugunean etxetik ekartzen laguntza ematen digu.
- Ikasturtean zehar hainbat ekintzetan parte hartzera gonbidatuta daude: ipuin bat kontatzera edo entzutera, beraien seme-alaben urtebetetzea eskolan ospatzera, haur txiki berri bat jaio bada aurkeztera etortzea...

## PROZEDURA

Haurra eskolara etorri baino lehen, egunero, gela txukun dagoela bermatzen dugu eta txoko bakoitzeko materiala ondo dagoela egiaztatzen dugu.

Haurrarentzako segurtasun neurriak hartzen ditugu eta egunerokotasunean askatasuna bermatuko duten lan plangintzak sortzen ditugu.

Haurra da bere arauak ezartzen dituena, materialak aukeratzeko dituena eta jolasaren amaiera erabakitzen duena hezitzaile baten esku-hartzerik gabe. Haurrak berak erabakitzen du jolasten edo esperimentatzen jarraituko duen ala ez, beste gauza bat aukeratzeko duen ala daukanarekin jarraitu duen...

Hezitzaileak eguneroko zereginak antolatzerakoan, haurrak jolasten eta manipulatzeko ahalik eta denbora gehien pasatzea ahalbideratzen du, denbora hau jarraitua eta etenik gabekoa izanik.

Hitz gutxi erabiltzen ditugu eta ez dugu jolasa aurreratzen.

Jolasa era desberdinetan aurkezten diogu:

**Jolas txokoak:** Gela txokoetan antolatzen dugu haurrak zertara eta nola jolas egin nahi duen aukeratzeko. Gela guztietan daude txoko batzuk finkoak direnak eta beste batzuk, ordea, urtean zehar aldatzen direnak, taldearen beharrak kontuan hartuta.

**Jolas heuristikoa:** Gelan bertan dugun ez-ohiko materialaren bidez (kateak, poteak, giltzak, matxardak, kortxoak...) esploratzea eta esperimentatzea da. Nahi badugu balio-anitzeko gelan egin daitezke saio bereziagoak.

**Esperimentatzeko proposamenak:** Testura, kolore, zapora... material desberdinekin esperimentatzeko ekintzak proposatzen ditugu umeak esperimentatzeko, manipulatzeko, gozatzeko... Batez ere ondorengo materialekin egiten dugu lan: semola, irina, gelatina, jogurta, pasta egosia, txokolataa...

**Argi-mahaiak:** Argia eta material desberdinekin proposamenak egiten ditugu ilundu daitezkeen edozein espaziotan.

**Mugimendu jolasa:** Eskola osoak honetarako balio du, baina baditugu mugimendu librea hobeto sustatzeko aukera ematen duten lau gune: bi patio, aretoa eta psiko-gela.

**Asteroko proposamenak:** eskolan astero antolatzen ditugun proposamenak dira: psikomotritzitatekoak, zentzumenezkoak, etab.

**Proposamen artistikoak:** Proposamen esanguratsuak eta egokituak diseinatzen ditugu, “erronkak” proposatzen dituztenak eta jakin-mina eta esploratzeko eta ikasteko beharra sortzen dituztenak. Planteamendu honekin batera muga egituratzaile batzuk ditu beti, pertsona gisa hazten lagunduko diotenak.

Nahiz eta antolatutako proposamenak izan, umeak azken hitza du, hau da, berak erabakitzen du nola jokatu proposamen hauekin.

## **BEHAKETA**

- Ume bakoitzaren jolasa informazioa lortzeko (beharrak, interesak, garapenak eta bilakaerak) behatzen dugu.
- Hezitzaileok ume bakoitzaren garapen globalaren erregistroa egiten dugu.
- Behaketa distantziatik egiten dugu. Eguneroko lana da eta tutoreon artean komunean jartzen dugu gelan gertatzen dena.

## **EBALUAZIOA**

Ebaluazioa jarraia da. Ez ditugu umeak ebaluatzen, guk proposatutako ekintzak, gure esku-hartzeak eta materialak baizik. Honek laguntzen digu proposamenak egiteko orduan, era aipatutakoak aurkezteko.

### **3.4. Espazio eta material hezitzaileak**

Etxean bezala, eskolak ere bizilekuak dira haurarentzat, baina espazio hezitzaileak ere badira.

Harremanak heziketaren mamia direnez, eta espazioak pertsonen arteko harremanak baldintzatzen dituzenez, espazioak bereziki zaintzen ditugu.

Espazioak eta bertan dauden materialak eskolako ingurunea osatzen dute eta ingurune horretan hainbat faktore (sentsoriala, korporala, emozionala...) haurarentzako erreferentia izateko kontuan hartzen ditugu.

Eskolako espazio guztiak diseinatzeko eta materialak aukeratzeko orduan, hurrengo ezaugarriak kontuan izaten ditugu:

- Jarduera librea sustatzea: haurrak erabakitzen du eta jokatu, manipulatu eta esperimintatu behar du.
- Haurren hainbat gaitasun garatzen laguntzea.

- Ikerketari, aurkikuntzari, sormenari... buruzko esperientzia esanguratsuak ahalbidetzea.
- Jolas autonomia, askea eta sortzailea sustatzea.
- Giro lasaia mantentzea.
- Bakarkako eta taldeko jolasa ahalbidetzea.

### **3.4.1. Espazioa**

Haurrak hiru agente hezitzaile ditu: heldua, gainerako haurrak eta inguru fisikoa. Hortaz, espazioa irakaskuntzan elementu garrantzitsua da.

Eskola baten espazioak bere proiektu pedagogikoa islatzen du.

Espazioak diseinatzen ditugunean haurren begien altueratik egiten dugu (etzanda, katuka, eserita, zutik). Espazio egoki batek ongizate emozionala bermatzen du, gaitasun motorrak ahalbidetzen ditu, banakako eta taldeko garapena sustatzen du eta norberaren gaitasunak probatzeko aukera ematen du. Beraz, espazioa erabilgarria, estetikoa, neutroa, gainkargurik gabe, erakargarria eta hurren adinera, beharretara eta interesetara egokitzen dugu.

Eskolak hainbat oztopo saihestezinak ditu: gelek ez dute patiorako irteera zuzenik eta txikiegiak dira, batez ere bi urteko taldeentzat. Gure esku dagoena, eskolako eta geletako espazioak antolatzea da.

Gela guztietan hurrengo espazioak daude:

- Mugimendu espazioa (mugimendurako, manipulatzeko eta jolaserako espazioa).
- Atsedeen hartzeko espazioa.
- Bazkaltzeko espazioa.
- Higiene espazioa.
- Hezitzailearen espazioa.

Hezitzaileok umearen eskura izan behar dugu, horregatik espazioan gure kokapenari garrantzia ematen diogu.

## **SEHASKAKOEN GELETAN:**

**Zorua** esparru garrantzitsuena da, mugimendu askea defendatzen baitugu. Horregatik espazioa oztopo gabekoa da.

**Tatamiak** ume bakoitzaren mugimendua eta jarreraren beharrei erantzuten die. Ikasturtea aurrera joan ahala, taldearen beharren arabera, eremu hau aldatzen dugu (igotzeko kuxinak, altuera ezberdinetako desoreka duten txokoak, sartu eta ateratzeko egurrezko Pikler- estrukturak...).

**Sofa bat** daukagu hezitzaileok biberioiak emateko eta besoetan erosoago egoteko edo familiak umeari arropa kendu, titia eman eta gurekin hitz egiteko erabiltzen dugu.

**Hezitzaileontzat mahai bat eta bi aulki** ditugu. Horiek magalean bazkaltzen emateko erabiltzen ditugu. Mahai honen ondoan **tronak** kokatzen ditugu hor eserita bazkaltzen ohituta dagoenarentzat.

**Bi armairu txiki** ditugu umeen agendak eskura izateko.

Sehaskakoen bi gelen artean, **sukaldea** eta **lo-kuluxka gela** daude. Bi espazio horiek bi sehaska gelak erabiltzekoak dira. Sukaldean armairuak, mikrouhina, hozkailua, biberioen berogailua eta ur-irakigailu elektrikoa daude. Esparru horretan biberioak eta ahiak prestatzen ditugu eta esnea, fruta, jogurtak eta pureak gordetzen ditugu. Lo-kuluxka gela ilunagoa da loa errazteko eta han ume bakoitzaren sehaska dago.

Gelan sartu aurretik umearen arropa gordetzeko **pertxeroak eta kaxoiak** daude. Eskolako beste espazioak ere (korridorea, psikomotrizitate gela...) bigarren edo hirugarren hiruilekoetan erabiltzen hasten gara, umeak gelatik ateratzeko prest daudenerako eta espazio handiagoa behar dutenerako.

Bukatzeko, **garbitasun txokoa**. Hor bainuontzia eta aldatokia dituen estalkia dago eta krema, toalla hezeak eta pixoihalak gordetzeko kutxatilategiak ditugu. Estalkiaren azpian, pixoihalak eta toalla handiak gordetzeko armairuak eta umearen aldatzeko arropa gordetzeko kaxoiak ditugu.

## **URTE BETEKOEN GELETAN:**

Gelako espazioa hainbat txokotan antolatuta dago:

**Sinbolikoa:** sukaldetxoa, garajea, aulkitxoak, panpinak... ditugu.

**Mugimendu-txokoa:** gelan bertan psiko materialekin txoko bat jartzen dugu. Modu honetan, umeak, mugitu, igo, jaitsi, salto egiteko... esparru aproposa du.

**Lengoaia txokoa:** alfonbra, kuxinak eta sofa txikiak daude ipuina, agurrak, kantak... egiteko.

**Logiko-matematikoa:** puzzleak, eraikuntzak, material heuristikoa... psikomotrizitate fina lantzeko esparruak ditugu.

### **Ezkutatze ku-kua.**

Urtebetekoen bi gelek haien artean konpartitzeko bi eremu daukate: **komuna eta gelen arteko espazioa**. Lehenengoan hiru komunak, bi iturri, aldatokia eta hainbat kutxatila non umeen pixoihalak eta garbitzekoak gordetzen ditugun. Bigarrenean materiala gordetzeko armairuak eta apalak daude. Kurtso hasieran, hezitzaileok haien erabilera antolatzen dugu.

### **BI URTEKOEN GELA:**

Urtebetekoen gela bezala, hainbat txokotan antolatuta dago:

#### **Lengoaia txokoa, jolas sinbolikoa lantzeko txokoak, mahaien txokoa...**

Gela honek ere, **komuna eta gelen arteko espazioa** konpartitzen du ondokoarekin. Komuna, urtebetekoena bezalakoa da. Gelen arteko espazioa bazkaltzeko ere erabili dezakegu.

### **KOMUNEAN DAUZKAGUN ESPAZIOAK:**

Guztiok erabiltzeko espazioetan txandak antolatzen ditugu:

**Psikomotrizitate gela:** espazio handia da umeak bere motrizitatea gara dezan (eskailerak gora egiteko, altuera desberdinetako saltoak egiteko, orekak egiteko, lasaitzeko...).

**Aretoa:** mugimendurako zein beste aktibitaterako espazioa da.

**Balio anitzeko gela:** esperimentazioa eta proposamen desberdinak egiteko esparrua da; egunero lo-kuluxka egiteko leku bihurtzen da ere.

**Jantokia:** hamaiketakoa eta bazkariak emateaz aparte, beste ekintza batzuetarako ere erabiltzen dugu.

**Korridoreak:** leku irekiak dira eta geletatik hurbil daudenez materiala ateratzeko eta zenbait aktibitate garatzeko erabilgarriak dira.

**Patioak:** bi patio ditugu. Kanpoko espazioak aukera interesagarriak ematen ditu mundua ezagutzeko, bere gorputza probatzeko, arriskuak kudeatzeko... Umeak



erronka berriei aurre egin behar die: altuera jolasak (altuera batera igo eta erortzeko arriskua esperimintatzea), abiadura jolasa... Gaitasun fisiko, emozional eta kognitibo modu naturalean eskuratzen laguntzen dute.

- **Aurreko patioa:** hiru espazio ezberdinetan banatu dugu (mugimendurako, gune lasaia eta esperimintatzeko). Lurrean margotutako ibilbide eta jolas desberdinak dauzkagu.

- **Atzeko patioa:** Atzeko patioan bi eremu daude. Lur eremuan, batzuetan jolastekoaz gain, baratza egiteko aukera dugu. Lurrarik gabekoa, ordea, motorrekin, baloiekin, esperimintatzeko mahaiekin... jolasteko erabiltzen dugu.

**Oharra:** Lehenengo hiru hilabeteetan sehaskakoen geletakoek ez dute banaketan parte hartzen, haurrak gazteegiak baitira. Ondoren, gela horien beharra aztertzen dugu eta espazio hauen erabilera berrantolatzen dugu.

### **TXOKO HIZTUNAK:**

Gure eskolan Artea eta informazioa lotzeko esparru bereziak ditugu. Izan ere, eskolako ahotsa entzuteko familientzat deigarria izan behar da eta erabiltzen den era zaindu behar da.

Eskolako leku hauek lantzen urte asko daramagu. Gure paretek "hitz egiten" dute eta gure nortasun ikurrak dira, aldakorrak, biziak eta, askotan, pentsatzera gonbidatzen gaituzte.

Momentuaren arabera azaldu nahi duguna erakusteko bi gelen arteko korridoreetako espazioak erabiltzen ditugu. Eskola osoan, guztira, hiru Txoko Hiztun ditugu.

Txoko hauek dotoreak, argiak eta xumeak izatea eta eskolako bizitza islatzea nahi dugu, horrela mezua erraz ulertzen da eta arte-lana zaintzen dugu. Izan ere, Artea Udal Haur Eskoletako ardatz bat da.

Txokoak egoeraren arabera aldatzen ditugu eta isiltasun momentuak ere egiten ditugu, aldaketak erakargarriagoak izango direlakoan.

Prestaketa antolatzeko, talde bilera batean gaiak eta maiztasuna erabakitzen dugu. Espazio bakoitza bi gelaka konpartitzen dugunez, ezer jarri baino lehen txokoa nola apainduko dugun adosten dugu. Urtero, eraldaketak eta banakako proposamenak berriro egiten ditugu. Gela bakoitzak duen irudimena eta sormena islatzen du eta gai bakoitza azaltzeko autonomia dauka.

Gure Txoko Hiztunetan hainbat momentu, mezu, gogoeta... eta eskolako bizitzan garrantzitsuak diren gaiak adierazten ditugu:

- Eskolara ongi etorria.
- Gure eskolako hezkidetzaren-nortasun ildoak.
- Eskolako libururen mailegua (haurren adina kontuan hartuz aproposenak txoko bakoitzean).
- Kultura eta ohiturak: Gabonak, Inauteriak, Prudentzio Deuna...
- Urtaroak.

Gai hauek lantzeko material naturalak eta gure kultura eta tradizioekin zerikusia dituzten objektuak erabiltzen ditugu: danborra, jaietako zapia eta mozorroak, pinaburuak, gaztainak, hostoak, kotoia, egurra, kandelak...besteak beste.

Aipatutakoaz gain kurtsoan zehar argazki erakusketak eta beste proposamen batzuk ere prestatzen ditugu.

### **3.4.2. Materialak**

Azken urteetan, ohiko jostailuak eta plastikozkoak erabiltzeari utzi diogu. Materialak ez estrukturatuak, bizitzan topa daitezkeenak, neutroak, egurrezkoak, metalezkoak eta helburu zehatzik gabekoak eskaintzen dizkiogu. Materialak, beste sentsazio eta aukerekin, umearen jolasa aberasteaz gain, manipulatu, behatu, sailkatu, multzokatu eta elkartzeko balio du.

#### Materialaren ezaugarriak:

- Haurraren autonomia garatzeko, sozializazio prozesurako eta pentsamenduaren eraikuntzarako baliagarria.
- Material egokia eta posibilitate ugari eskaintzen dituena.
- Fisikoki sendoa eta material noblez egina (naturala eta ukimenerako atsegina).
- Segurua eta neurri egokia duena. Ez-toxikoa.
- Gutxi baina ondo aukeratua. Kalitatezkoa.
- Erakargarria eta ederra.
- Estimulurik gabekoa (argia, soinua, mugimendua), ez egituratua.

### Nola aurkezten dugu materiala:

Haurren garapenaren arabera hornikuntza aldatzen dugu, gela haurren beharretara egokitzeko. Materiala eskura du bere interesen arabera aukera dezan. Garapen motor eta posturalari egokitzuz, objektuak gertuago edo urrunago, altuago edo baxuago jartzen ditugu.

#### **- Sehaskakoen geletan:**

Haurren lehenengo interesgunea bere gorputza dela kontuan izanda, hasieran objektu gutxi eskeiniko diogu. Inguruarekiko interesa sortzen joan ahala, objektu gehiago aurkezten dizkiogu. Garapen ebolutiboari jarraituz, lehenengo pisu gutxiko objektuak, zapiak, objektu bigunak... ondoan jartzen dizkiogu. Aurrerago, gauzak altxatzeko indarra edo manipulaziorako trebetasun gehiago duenean, beste objektu batzuk: poteak, koilarak, lepokoak, kateak, egurrezko objektuak...

Umea ahoz gora dagoenean materialak gertu aurkezten dizkiogu berak autonomoki hartzeko. Umea mugitzen hasten denean, urrunago kokatzen ditugu. Esertzen den momentutik **altxor saskia** aurkezten diogu. Bertan sartzen ditugun materialei garrantzia handia ematen diegu. Mugitzen hasten denean (arrastaka, katamarka, oinez), espazioa ikertzeak objektuak berak baino garrantzia handiagoa hartzen du.

#### **- 1-2 urtekoen geletan:**

Materiala hainbat txokoetan antolatzen dugu haurrak eskuragarri izateko. Objektu bakoitza ezagutu ondoren, umeak berak jolasa asmatzen du, adibidez, traseak, sailkapenak, objektu bat baino gehiago erabiltzen ditu...

### **MAILAKO MATERIALEN SAILKAPENA**

#### **Sehaskakoen geletan:**

- Altxor saskia: objektu naturalak, material naturalekin egindako objektuak, metalezko objektuak, egurrezko objektuak eta kartoizko objektuak. Liburuxka batean sailkapen hauen materialak zerrendatuta daude.

- Kukua.

- Txintxirrinak.

- Arrasterak.

- Mobilak.

- Ipuinak.
- Panpinak eta pelutxeak.
- Musika tresnak.
- Ispiluak.
- Material heuristikoa: metal eta egurrezko uztail txikiak, metalezko flan-ontziak eta poteak. kutxak, kateak...
- Koltxonetak eta estruktura bigunak.
- Egurrezko aldapak eta kubo-kaxoia.
- Etxeko edo baserrien argazki errealak.
- Naturaren argazki errealak.
- Pikler pilota.
- Zentzumen botilak.
- Oihalak.
- Pilota handiak.
- Sehaskak.
- Tronak.
- Hamakak.
- Altzari baxuak.

**Urte batekoen geletan:**

- Kukua.
- Arrasterak.
- Mobilak.
- Ipuinak.

- Panpinak eta pelutxeak.
- Musika tresnak.
- Iturgintzako tuboak.
- Material sentzoriala (heuristikoa): metal eta egurrezko uztail txikiak, metalezko flan-ontziak eta poteak, egurrezko goilarak, burruntzaliak, kutxak, kateak, lapiko tapak, kokoak, itsas maskor handiak, botilak, matxardak...
- Mugimenduko txokoa: koltxonetak, egurrezko aldapak eta kubo-kaxoia...
- Sukaldearen txokoa: sukaldeak, lapikoak, egurreko koilarak eta sardexkak...
- Garajearen txokoa: kotxeak, alfonbra.
- Puzzleak, enkajeak, ensarteak.
- Egurrezko eraikuntzarako piezak.
- Egurrezko animaliak.
- Ispiluak paretan.
- Koltxonetak eta estruktura bigunak.
- Eskailera eta aldapa duen egitura.
- Mozorroak.

**Bi urtekoen geletan:**

- Kukua.
- Arrasterak.
- Mobilak.
- Ipuinak.
- Panpinak eta pelutxeak.
- Musika tresnak.

- Material heuristikoa: metal eta egurrezko uztail txikiak, metalezko flan-ontziak eta poteak. Kutxak, kateak...
- Iturgintzako tuboak.
- Plastikarako materiala: gometsak, margoak, arkatzak, errotulagailuak, kartulinak...
- Sukaldearen txokoa: sukaldeak, lapikoak, egurreko koilarak eta sardexkak...
- Garajearen txokoa: kotxeak, alfonbra.
- Puzzleak, enkajeak, ensarteak.
- Egurrezko eraikuntza piezak.
- Naturaren materialak: pinaburuak, gaztainak, intxaurrak...
- Medikuen maletina.
- Mozorroak.
- Egurrezko animaliak.
- Ispiluak paretan.
- Material sentzoriala (heuristikoa): metal eta egurrezko uztail txikiak, metalezko flan-ontziak eta poteak. Kutxak, kateak...
- Ispiluak haien altueran.
- Sofak edo kuxinak.

### **Patioak:**

- Hareontzia (kuboak, palak, ontziak, goilarak...).
- Erratzak, bilgailuak.
- Hodien egitura.
- Neurri ezberdinetako pilotak eta baloiak.
- Klarionak.

- Belar artifizialeko alfonbra.
- Esperimentaziorako mahaiak eta material heuristikoa.
- Neumatikoak.
- Mugimenduko materiala: kolunpioak.
- Motorrak eta trizikloak.

**Aretoa:**

- Egurrezko egitura handia.
- Belar artifizialeko alfonbra eta kuxinak.
- Neurri ezberdinetako egurrezko materiala.
- Egurrezko aldapa eta kubo-kaxoia.
- Kartoizko adreiluak.
- Lego handiak.
- Egurrezko zilindroak.
- Egurrezko kutxak.
- Kartoizko kutxak.
- Pilotak.
- Uztaiak.
- Oihalak eta pelutxeak.

**Sukaldea eta jantokia:**

- Esperimentatzeko materiala (irina, gelatina, semola, pasta...).

**Balio anitzeko gela:**

- Argi mahaiak (ikasturteko erdia dauzkagu Lourdes Lejarreta eskolarekin konpartitzen ditugulako).

- Ezaugarri ezberdinetako kutxak.
- Egurrezko karreteak.
- Lokarriak.
- Tapoiak.
- Egurrezko koilarak, sardexkak.
- Maskor handiak.
- Oinetakoak sartzekoak.
- Makilatzeko eta margotzeko brotxak.
- Inbutuak.
- Matxardak.
- Diru zorroak.
- Poltso txikiak.
- Oihalak.
- Zapiak.
- Giltzak eta giltzarriak.
- Sakelako telefono zorroak.
- Iraztontziak.
- Kizkurgailuak.
- Erruloak.
- Pilota txikiak.
- Begiztak.
- Burdinezko flan-ontziak.
- Sukaldeko paper bilkaria sartzeko makilak.



- Cdak.
- Botoi handiak.
- Egurrezko morteiruak.
- Kartoizko tutuak.
- Zumezko saskiak.
- Haizemaileak.
- Esku-argiak.
- Eskularruak.
- Material ezberdinetako poteak.
- Eskuilak.
- Mustukak.
- Lumak.
- Borlak.
- Sakelako telefonoak.
- Neurri desberdinetako kateak.
- Xiringak.
- Artileak.
- Iturgintza tutuak.

**Psikomotrizitate gela:**

- Neurri eta gogortasun ezberdinetako koltxonetak eta tatamiak.
- Oihalak.
- Pelutxeak.
- Espumazko makilak.

- Espumazko kuboak.
- Espumazko arkuak.
- Picklerren egitura.
- Horma-barrak.
- Rokodromoa.

### 3.5. Antolamendua eta funtzionamendua

Antolamendu akordioak duen helburu nagusia komunitate arteko harremanak eta denon lana erraztea da. Horretarako hurrengo akordioetara iritsi gara:

#### GELETAKO BANAKETAREN IRIZPIDEAK

Ikasturtero, matrikularen arabera hurrengo kurtsoan hezitzaileok zein geletan izango garen adosten dugu ondorengo irizpide hauei jarraituz:

- Bi tutoreak taldearekin jarraitzea. Tutore bakarra talde berdinarekin geratzea ere posiblea litzateke.
- Urte batekoen gelen artean jarraitzen duten ume kopuru gehien duen gelako tutoreak bi urtekoen gelara pasatzea.
- Bi urtekoen gelako tutoreak zikloa bukatu eta sehaskakoen gelara pasatzea.
- Urte batekoen gelan bi urte jarraian baino gehiago ez egotea, horrela nahi ez izatekotan. Kasu honetan, zein gelara joan aukeratzeko lehentasuna daukate.
- Urte batekoen geletako tutoreak ikasturte bat egotekotan eta ume kopuru berdina izanda, sehaskakoen gelatik ume gehiago dutenak bi urtekoen gelara joango dira.
- Sehaskakoen gelatik urte batekoen gelara pasatzea.

#### ERREFERENTE BAT SARRERA ETA IRTEERETAN

Lanaldi mota, mailaren arabera, eskola ordu guztiei erantzuteko eta ahalik eta familia gehienei informazioa jaso eta emateko gai izateko antolatzen dugu. Horrela, sarrerako momentu garrantzitsuenean eta irteera ugarien momentuan gela bakoitzeko hezitzaile erreferente bat egoten da.

Hezitzaileon ordutegiak eremuka antolatzen ditugu:

Sarrerako ordutegiak:

- A gelak: 8:00 eta 9:15

- B gelak: 8:30 eta 9:30

Irteerako ordutegiak:

- A gelak: 15:00 eta 15:45

- B gelak: 15:30 eta 16:00

## **ESKOLAKO ORDUTEGIAREN MALGUTASUNA**

Familiaren beharra talde osoan aztertu eta erabakitzen dugu.

## **EGUERDIKO IRTEERA ETA JANTOKIA**

Gela bakoitzean hezitzaile batek eguerdiko irteera egiten du. Gela batetik ume gehienak joatekotan ondoko gelako umeekin elkartzen gara, horrela hezitzaile batek irteera egiten jarraitzen du eta bestea jantokira joaten da laguntza ematera.

Lehenengo guraso bileran, antolaketa honen informazioa familiari helarazten diogu.

## **JANTOKIAREN HASIERAREN ORDUTEGIA**

Jantokira joateko 30 minutuko malgutasuna dugu, hau da, 12:00etatik 12:30era eta gela bakoitzak bere ordutegia zehaztuko du, eskolako funtzionamendua oztopatzen ez badu.

## **13:30EKO IRTEERA**

Jantokian geratzen diren umei 13:30ean ateratzeko aukera ematen diegu. Irteera hau 13:30etik 13:40ra da. Familien eskaerak aztertzen ditugu eta horren arabera, 10 minutu aurrera dezakegu, beti 10 minutuko irteera izanda.

Irteera bi gelen artean antolatzen dugu. Ume kopuru handiena duen hezitzailea ateratzen diren umeez arduratzen da eta besteak lo-kuluxkara joaten dira.

Sehaskakoen hezitzaileek bai atea irekiz eta ixteaz arduratzen dira.

## **IKASTURTEAREN HASIERAN JANTOKI ESPAZIOEN ANTOLAMENDUA**

Printzipioz, eskolan, bi jantoki ditugu: jantoki handian urte bateko umeak daude eta korridore amaieran dagoen jantokian bi urtekoak. Honetan ere, urte bateko umeek jan dezakete. Beharrezkoa ikustekotan, ohiko gelak edo gelen arteko espazioak erabil ditzakegu.

## **GOSARIAK**

Umeak gosalduta etorri behar du eskolara.

Jakin badakigu, sehaska geletako umeen jateko ordutegiak ezberdinak direla eta behar duten momentuan janaria ematen diegu.

Haurra etxetik gosalduta etortzen bada, bere beharrak asetuta sartzen da eskolara. Hau kontuan izanda ere, salbuespenak egon daitezke. Haur batek egun batean lo gaizki egin badu edota etxean jaiki denean ez badu gosalduta nahi, eskolan hartzeko aukera ematen diogu, umearen ongizatea bilatzen baitugu.

## **OSASUN ARAUTEGIA**

Sareko erabilera-araudiaren gomendio guztiak jarraitzen ditugu. Ikasturteko lehenengo guraso bileran, osasun-arautegia guztiok errespetatzeko beharra azpimarratzen diegu. Honetaz gain, hurrengo irizpidea jakinarazten diegu: umeak 37,5 graduetako tenperatura badauka, familiari deitzen diogu bere bila umeak sukar bortitza izan dezake eta.

## **ESKOLAKO ESPAZIOEN ERABILERA**

Talde guztiek espazioak berdin erabil ditzaten, hurrengo antolaketa egiten dugu.

- **Patioa:** edozein momentutan erabil dezakegu.

- **Aretoa:** sehaskakoen umeak ateratzen ez diren bitartean, beste gelakoak 35 minutu atera daitezke, ordutegi bat jarraituz. Bigarren edo hirugarren hiru hilabeteen, sehaskakoen gelako umeak aretora ateratzen hasten direnean edota jairen bat bertan ospatzekotan, denbora hori murrizten dugu gela guztien artean banatuz.

- **Psikomotrizitate gela, balio anitzeko gela eta jantokia (bigarren balio anitzeko espazioa):** sehaskako bi gelak egun berean joaten dira eta beste 4 gelek egun bana dute.

- **Bi korridoreak:** sarrera ondoan dagoena, sehaskakoen gelakoek erabiltzen dute. Azken eremuan dagoena urte beteko eta bi urteko umeek erabiltzen dute.

## **TALDE BILERAK ETA MAILAKO BILERAK**

Hamabostean behin, astearteetan, 2 orduko talde bilera egiten dugu. Lehenik, hasierako ordu erdia talde txikietan lan egiteko erabiltzen dugu (mailaka eta eremuka) eta talde bilera orokorrak 90 minutu irauten du.

Irailaren hasieran, talde bilera batean ikasturte osoko bileretako datak zehazten ditugu. Talde osoko bileretako eguna aldatu nahi izatekotan, ikasturteko azken hiruhilabetean eztabaidatzen dugu.

**HEZITZAILEEN LAN EGITEKO ERA ERRESPETATZEN DUGU ESKOLA EDO BESTEEN ANTOLAKETARI OZTOPORIK EGITEN EZ DION BITARTEAN.**

### **3.6. Ebaluazioa**

Haur Hezkuntzan ebaluazioa etengabea da, denboran luzatzen den prozesua da. Ebaluazioa ez da neurtzea, jasotako informazioa baloratzea baizik, hezkuntza-kalitatearen hobekuntzarako. Umea ez dugu inoiz ebaluatzen, bere garapen prozesua islatzen dugu.

## **HELBURUAK**

- Hezkuntza-prozesua hobetzea: haurarena, eskolarena eta hezkuntza sistema osoarena.

- Umeari eskolak eskaini dionak (espazioak, materialak eta denborak, harremanak, eta abar) haur bakoitzarengan duen eragina baloratzea.

## **ZER EBALUATZEN DUGU**

### **Haurraren garapen prozesua:**

- Umea bere buruarekin nola sentitzen den.

- Umearen ongizatea.

- Eskolan sarrera eta agurra nola bizi duen.

- Nola eraikitzen dituen harremanak familiarekin, hezitzaileekin, eta beste umeeekin.
- Nola bizi dituen zaintzak (janaria, loa, pixoihalaren aldaketa, mukiak kentzea).
- Haurraren jarduera.
- Garapen psikomotorraren jarraipena.

### **Hezitzaileen hezkuntza-praktika:**

Praktikari buruzko banaka, bikote eta taldeko hausnarketarako denbora bilatzen dugu alderdi hauek kontuan harturik:

- Hezkuntza-proposamenen eta helburuen koherentzia.
- Gure jarreraren ondorioak.
- Umearen erritmoa errespetatzen dugun.
- Umearen beharrei nola erantzuten diegun.
- Nolakoa den umearekin eta bikotearekin gure lan egiteko era.
- Nola sentitzen garen lanean.
- Nolakoa den umearekiko, taldearekiko eta familiarekiko begirada.

### **Testuingurua:**

- Eskolako antolaketa.
- Giza harremanak.
- Prestakuntza-jarduerak.
- Espazioen erabilera eta materialen egokitasuna.
- Giro abegitsua.
- Ekintzen erritmoa haurraren beharretara egokitzea.

### **Familiarekiko harremana:**

- Familiarekin ditugun bilerak, elkarrizketak eta eguneroko uneak ebaluatzen ditugu.

### **NOLA EBALUATZEN DUGU**

Haur Hezkuntzan, 0 urtetik 3 urtera bitarteko etapan, behaketa ebaluatzeko funtsezko teknika da, baina ez ditugu beste teknika batzuk bazterten.

#### **- Behaketa**

Behaketan oinarritutako informazioa koaderno batean apuntatzen dugu erregistro moduan haurraren jarraipena ikusteko (umearen hasierako egoera, garapena, hezitzaileen helburuak, estrategiak...).

#### **- Txostenak**

Banaka zein bikoteka erregistro orriak betetzen ditugu.

Harrera garaian, egunero haur bakoitzaren jarrera behatu eta idazten dugu hurrengo arloetan: gurasoengandik banatzearekiko, hezitzaileekiko, haurrekiko, ekintzarekiko, janariarekiko, loarekiko, eta abar. Informazio hori txosten batean islatzen dugu.

Ikasturtean zehar idazten dugu haur bakoitzaren garapena eta maiatzetik aurrera informazio honekin "Azken ebaluazioaren txostena" betetzen dugu.

Txosten hauek zaharkituak geratzen badira berrikusten ditugu.

#### **- Familiekiko elkarrizketak eta bilerak**

- Zuzendariak familiarekin lehenengo kontaktua izaten du, lehenengo datuak jasotzen ditu eta banakako galdetegia eman diezaioke tutoreekin komentatzeko.

- Tutoreok lehenengo elkarrizketa egiten dugu familia bakoitzaren errealitatea, umearen ezaugarriak, beharrak, nahiak, erritmoak... ezagutzeko.

- Kurtsoan zehar haur bakoitzaren jarraipena egiteko elkarrizketak egin ditzakegu.

#### **- Bikotearekiko koordinazioa eta talde bilerak**

Bertan izaten ditugun eztabidak eta hausnarketak kontuan hartzen ditugu praktikaren hobekuntzarako oso baliagarriak direlako.

**- Ikus-entzutezko materiala.**

Argazkiak eta bideoak erabiltzen ditugu.

**- Auto-ebaluazioa.**

Gure alde ahulak eta sendoak ezagutzeko eta egindakoaz eta egiteke dugunaz jabetzeko aukera ematen digu.

**- Memoria.**

Ikasturte bukaeran memoria betetzen dugu. Hemen gertatutako dena baloratzen dugu, hurrengo ikasturtean kontuan hartzeko.

#### **4. HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUSPENA**

Urteroko Eskolako Plana gure Hezkuntza Proiektuan oinarrituko dugu. Dokumentua irekia eta malgua denez, memorietan islatutako proposamenak jasoko ditugu EHPren berrikuspena egiterakoan.

Berrikuspen hau, uztailean eta talde osokoa izango da eta guztion proposamenak eta hobekuntzak kontuan hartuko ditugu. Zer aldatuko dugun, nork idatziko duen, noizko egon behar den bukatuta... adostuko dugu.

Halaber, Eskolako Hezkuntza Proiektuak hezkuntza komunitate osoari eragiten dio. Beraz, berrikuspenak hezkuntza komunitate kide berrien aurrean legitimatzea garrantzitsua da.

Gure eskolako Hezkuntza Proiektua bost urtean behin eguneratuko dugu. Beraz, 2025. urtean dokumentuaren lehenengo berrikuspena egingo dugu.



## 5. BIBLIOGRAFIA

ABAD, J. eta RUIZ DE VELASCO, Á. (2014). Contexto de simbolización y juego. La propuesta de las instalaciones. Aula de infantil, número 77, septiembre.

ACOUTURIER, B. ETA CHOCKLER, M. Psikomotrizitatearen mugimendu askearen garapena.

ACTION RESEARCH (Investigación- acción).

ARNAIZ SANCHO, V. (2013). La adaptación de los niños y sus familias en las Escuelas Infantiles de Menorca: Un proceso diseñado e implementado a partir de formación de docentes y familias. Revista Latinoamericana de Educación Infantil, Vol. 2.

ARREGI, I. (20). Zer da jolas librea, eta zertarako balio du. Hik Hasi, 227. alea.

BARANDIARAN, A. eta LARREA, I. (2016). Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakasleek. Haurra ebaluatzetik testuingurua ebaluatzera. Hik hasi.

BARANDIARAN, A. eta LARREA, I. (2016). Ebaluazioa haur hezkuntzan. Paradigma aldaketa. Hik Hasi.

BOWLBY, J. (1980). La pérdida afectiva. Ed. Paidós.

BOWLBY, J. (1993). Vínculos afectivos. Ed. Paidós.

CELA, J. y RAFOLS, N. (2009). Disfrázate o Disfrázate como quieras. Aula de Infantil, N° 52, p. 42.

CLOKLER, M. Lehen urteak. Txikitik handira, pardeletik komunera. Hazi Hezi 2018KO UDABERRIA 33. 24. Alea.

CONDE MARTÍ, M. (1982). El período de adaptación en la Escuela Infantil. Cuadernos de Pedagogía, N° 89.

DE TRUCHIS, CH. (1996). El despertar al mundo de tu bebé. Ed. Oniro.

DIAZ, C., GRANADOS, C. eta ORTIZ, A. Juguetes para vivir. Materiales que acompañan el crecimiento.

Ebaluazioa hezkuntzan. Paradigma aldaketa. 29 monografikoa. HIK HASI. <https://www.slideshare.net/kakauexakkakauxak/ebaluaketa-hik-hasi>

ERRUBRIKA. <https://cmapscloud.ihmc.us/rid=1T4L70XR9-R8CKH2-B7H/EBALUAZIOA.pdf>

ESTIVILL, E. eta FERBER, R. (2012). Eztabaidagai: Umearen loa. Metodoak bai ala ez? Hik hasi.

ESTREMER BAYOD, L. (2018). Ser niños acompañados. Crianza y Escuela. Universo de letras.

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SAILA. HEZKUNTZA BERRIZTATZEA. Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren araberrako ebaluazio sistema propioa.

FABRÉS, M. (2006). En el día a día nada es banal, nada es rutina. Revista Infancia, Nº 100.

FALK, J. Desarrollo lento o diferente. Revista Infancia, Nº 70.

FALK, J., MAJOROS, M. eta TARDOS, A. (2003). Consejos sobre la comida. Infancia y salud Nº 79.

FERRI, M. R. (2010). La importancia del cambio de pañales a bebés. Aula de Infantil, Nº 53.

FOMASI, I. eta TRAVAGLINI, P. J. (2016). Cuidados corporales de acuerdo con los principios de Pikler. RELADEI 5-3. Monográfico Pikler Lóczy.

FUSTÉ, S. eta BONASTRE, M. (2007). Psicomotricidad y vida cotidiana (0-3 años). Ed. Graó.

GUTMAN, L. (2017). Esfínteres y autoritarismo. Crianza con Apego Natural, porque el mundo está en sus manos, ¡déjale ser!

HERRÁN, I. E. (2013). La Educación Pikler-Lóczy: Cuando educar empieza por cuidar. Revista latinoamericana de Educación Infantil, Vol. 2.

Hezkuntza-Zerbitzua. Hezkuntza eta Kulturaren Saila. Udalaren Haur-Eskolen Sarearen Hezkuntza-Proiektua.

HOFFMANN, M. (2002). Los árboles no crecen tirando de las hojas: el desarrollo humano durante el primer año de vida. Buenos Aires: Del Nuevo Extremo.

IDOYAGA, J. (2014). ¿De qué hablamos con el niño o la niña en el momento de la comida? *Infancia: educar de 0 a 6 años*, N° 145.

JOVÉ, R. (2006). *Dormir sin lágrimas*. Ed. La Esfera de los Libros.

KATTUKA HAUR ESKOLA. *Esfinterren menperatzea*.

LA MONEDA, A. (2007). *Acompañando a dormir*. *Aula de Infantil*, N° 36.

LOBO, E. (2001). *Aún son muy pequeños*. *Infancia: educar de 0 a 6 años*, N° 69.

MALAGUGUZZI, L. *Teoría de la individualidad*.

MINISTERIO DE SALUD. *Desarrollo infantil. Primer año de vida*. II. 4.

MIRIAM, D. eta APPELL, G. (2010). *Lóczy, una insólita atención personal*. Ed. Octaedro.

Mondragón Unibertsitatea HUHEZI (2016). *Gure ebaluazioaren paradigma abiapuntua*. *Hik hasi* 31-41.

ORTA, C. eta OSÉS, A. (2008). *Entrar en la escuela*. *Infancia: educar de 0 a 6 años*, N°112.

PIKLER, E. (1995). *Moverse en libertad*. Ed. Narcea.

QUINTELA, J. (2014). *Loa, gerturatze piklertarra*. *Hik Hasi* 186.

QUINTELA, J. (2010). *Motrizitate Globalaren Garapena*. Oinarrizko ikastaroa.

QUINTELA, J., ZABALO, A., IRAZABAL, M.E., AMASORRAIN, J.A., ORTIZ, L. eta MADARIAGA, M. (1987). *Separarse, para ir a la escuela por primera vez: de la desolación compartida al constructivismo*. IV Jornadas de Pedagogía Operatoria.

ROSSENBERG, E. *Teoría de la comunicación no violenta*.

TARDOS, A. (2003). *Una vida activa. La actividad del niño desde los 2 meses a los 3 años*. Publicación del Instituto Emmi Pikler de Budapest. *No solo de pan viven los chicos*.

TARDOS, A. eta Szanto, A. (2003). *¿Qué es la autonomía desde la primera edad?* Publicación del Instituto Emmi Pikler de Budapest. *No solo de pan viven los chicos*.

TARDOS, A., VASSEUR-PAUMELLE, A. (1991). Reglas y límites en la guardería: adquisición de actitudes sociales. Revista de pediatría y de puericultura, Nº 7.

TARDOS, A. La mano de la educadora: Teoría del movimiento libre. Pickler, E. Revista infancia nº 11.1992.

TXINTXIRRI IKASTOLAKO PROFESIONALAK (2015). Ebaluazioa Haur Hezkuntzan. Berrikuntzarako pausuak. HAZITEGI – HAUR HEZKUNTZA.

VINCZE, M. (2002). La comida del bebé: del biberón a la autonomía. La Hamaca, Nº 12.

Vitoria-Gasteizko Jantoki ekologikoen Proiektua.

Zabalzana Udal Haur Eskolako Plana. 2019-2020.